

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXII. edizioa

2 0 1 0



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO
EUSKARA SAILA
ÁREA DE EUSKARA

zeurea da hitza
euskara
no te lo pierdas

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXII. edizioa

2 0 1 0

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-1143-2010

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Urterik urte Mikoleta Ipuin Lehiaketako sarea handitzen doa. Aurten 1989an ibilbidea hasi zuen lehiaketa hark XXII edizioa bete du eskuartean duzun liburu honekin.

Hogeita bat urte hauetan gure inguruan hainbat gauza aldatu badira ere, hari etengabeak josi ditu liburuetakako orriok: ume eta gaztetxoek begiradak.

Euren begien bitartez, bazterkeriak eta anaiartekotasunak, ametsen lorpenak, maitasunak edota maitasun ezak, magiak, abenturak eta beste hainbat gaik forma zehatza eta freskoa hartu dute ipuinotako letra eta marrazkietan.

Eta urteotako joan etorrian mundua aldatu eta gure gaztetxoak hartara egokitu diren arren, berezko begirada horretatik datorren ikuskera da liburu guztiak harilkatu dituen.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamarreko martxoaren hamarreko arratsaldeko bostetan batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 690 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. BOBI POTEAREN ABENTURAK,
Estitxu Corral Martinez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
2. EZKUR TXIKI TREBEA,
Unai Robles Herrero,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. HIRU MUSIKA TRESNA,
Iratxe Pereda Vazquez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. IRUNE ETA BERE AMETSAREN ARAZOA,
Maria Estebanez Santos,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
2. ANAIA SALGAI,
Begoña Ezquerro Oses,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. LIBURU MAGIKOA,
Eneritz Santamarina Pastor,
Felix Serrano LHI.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. OHE AZPIKO ATETXOA,
Alejandro Zabala Bernaola,
Artxandape Ikastola HLBHIP.
2. ARGITARANTZ JOANDA,
Nerea Romero Corcuera,
Miguel de Unamuno BHI.
3. BOOLING-A JASAN ZUEN MUTIKOAREN EGUNEROKOA,
Edorta Martinez Gomez,
Artxandape Ikastola HLBHIP.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. SORGINA!,
Elai Andraka Gonzalez,
Ignacio Ellacuria BHI.
2. ESTRALURTAR BATEN EGUNEROKOA,
Dario de Miguel Peñas,
Berrio-Otxoa HLBHIP.
3. BETI ZURE ONDOAN, LAZTANA,
Ane Martin Mendez,
Gabriel Aresti BHI.

A KATEGORIA:

- B KATEGORIA:**

- ### C KATEGORIA:

- D KATEGORIA:**

- Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Xabier Gereño, epaimahaikidea

Jose Maria Larrea, epaimahaikidea

Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea

Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



Bobi Potearen abenturak

*Estitxu Corral Martinez
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Kaixo neska-mutilak!! Ni Bobi potea naiz. Nire abenturak kontatzeko irrikaz nago. Ez naiz pote normala, aizue! Beharbada nire abenturak ez zaizkizue asko gustatuko edo bai, inork ez daki hori. Nik bakarrik esan ahal dizuet hemen kontatzen dena egia dela. Bueno hasiko naiz behingoz kontatzen.



Ni fabrika batean jaio izan nintzen. Egun batean tomatea deitzen zioten zerbait sartu zidaten barrura. Ni oso pozik nengoen baneukalako izen bat: tomatea!! Gero supermerkatu batera eraman ninduten. Oso handia zen, dena jendez beteta eta zarat handia zegoen. Han denbora luzea pasa nuen.

Egun batean esku batek hartu eta bere etxera eroan ninduen armairu batean sartu eta itxarotera!! Ni apur bat beldurtuta nengoen baina denbora pasa eta gero lagun batzuk ezagutu nituen, adibidez, Kafe jauna, Zereal andrea edota Azukre txikia.

Oso ondo pasatzen genuen. Egun batean zabaldu eta nire barruko kendu zidaten!! Oso hutsik sentitu nintzen eta gainera zaborrera bota ninduten!! Oso triste geratu nintzen, orduak eta orduak pasa nituen negar eta negar.

Arratsalde baten, gizon argal-argal batek hartu eta zirku batera eraman ninduen. Bertan nire barrura txanpon batzuk bota zituen eta horrelaxe jakin nuen soi-



nua neukala. Oso interesgarria iruditu zitzaidan eta gizon argalak beste izen bat ipini zidan: maraka. Hori ere asko gustatu zitzaidan: jolas ederra zen niretzat beste tresnekin abestea eta dantzatzea. Denon artean musika asmatu genuen eta poz-pozik izan nintzen, dibertigarria zen. Zirkuan asko ikasi nuen, baina dena ez zen izan jolastea beste gauza batzuk ere ikasi nituen, adibidez, nire txanda itxaroten. Lan eta lan egiten genuen egunero funtzio polita egiteko eta gure arteko harremanak onak ziren, nahiz eta batzuetan ados ez egon. Denok lana ondo ateratzea nahi izaten genuen, horregatik funtziotik gehien gustatzen zitzaidana txaloak entzutea zen. Egunak joan, egunak etorri, zirkuan urte asko eman nituen eta gainera oso ondo pasatzen nuen. Horrexegatik pena handia sentitu nuen gizon arga-

lak kalean bakar-bakarrik utzi ninduen. Ez dakit zergatik egin ote zuen baina ez dut inoiz ahaztuko gizon hori, nirekin oso ona izan zen eta.

Zergatik utzi ninduen kalean bakarrik pentsatzen nenbilela, beste esku batek hartu ninduen. Oraingoan askoz ere txikiagoa eta leunagoa: mutiltxo bat zen. Berak hartu bezain laster bere etxera eraman ninduen. Bere etxean nire barrura garbantzua bat eta lurra izeneko zerbait sartu zidan eta oso arraro sentitu nintzan pisu handia sartu zidalako barrura. Egunero-egunero ureztatzen ninduen. Mutilak beste izen bat jarri zidan: lorontzi eta oso izen polita iruditu zitzaidan. Egun batean kili-kiliak sentitu nituen eta horrelaxe jakin nuen nire barruan landare bat hazten zegoela eta oso harro sentitu nintzan!! Baina egun batean mutilak beste lorontzi bat erosi zuen, ni baino handiagoa, eta nire barruan zegoen landarea beste lorontziari ipini zion eta ni zaborrera bota ninduen. Berrito ere oso hutsik eta triste geratu nintzan baina mutilaren arrebak zaborretik hartu, garbitu eta paper polit bat ipini zidan. Bere mahian jarrita oso polita nengoen inoiz ez nintzen hain polita egon!!!!



Oraindik hemen nago: Lauraren alboan —horrelaxe deitzen da nire jabea—. Oso neska argia eta polita da eta niri asko gustatzen zait berarekin egotea eta margotzen ikustea, oso ondo margotzen duelako. Horrelaxe hasi ziren beste abenturaxo batzuk, baina horiek beste liburu batean kontatuko dizkizuet.

AGUR ETA BESTE LIBURU BAT ARTE!!!!

Dobi

Ezkur txiki trebea

*Unai Robles Herrero
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Mendiko harizti batera udazkena heldu zan. Haizearen ondorioz, zuhaitz guzti honeei euren fruituak lurrera jausten jakezan. Lurrean jolasean, ezkurak lagun egiten hasi ziran. Ezkur txikiak oso ondo ebilzan jolas eta jolas.

Ezkur txiki guztien artean, beti egoan bat taldetik kanpo. Ezkur txiki hori zerura begirantz egoten zan sarri eta bere laguntxoek ez ekien zergaitik. Egun batean, ezkur bat berarengana joan zan eta galdetu eutson ea jolasten ibili beharrean zergaitik begiratzen eban zerura.

—Nire ametsa horrelako zuhaitz handi bat izatea da eta etorkizunean horrelako zuhaitz bat izaten ahaleginduko naiz —erantzun eutson lagunari.

Udaberria heldu zan eta ezkur txikiak landareak ataritzen hasi ziren. Ezkur txiki trebea eguzki izpiak topatzen hasi zan, jakinda handia izatea errezago zala. Bere lagunak hori ikusita, burla egiten eutsoen. Nahiz eta burlak entzun, bere helburua hain argia zanez, ez eban kasurik egiten.

Uda heldu zan eta ezkur txikiak bere lagunak baino handiagoa zala ikusten eban.

Denbora asko pasa eta gero, ezkur txikiak enbor sendo eta adar luzeak eukitea lortu eban. Momentu horretan bere lagunek ezkur txikiak bere helburua lortu ebala ikusten eben.

Udazkena heldu zan eta gure ezkur txikia, zuhaitz eder eta sendoa zala, fruituak ematen hasi zan. Bere ezkurtxo txikiak lurrean egozan eta denetatik batek trebeagoa irudien. Ametsen bat eukiko ete du honek?

Eta halan bazan eta ez bazan, sartu dadila kalabazan eta urten dadila Lekeitioko plazan.



Hiru musika tresna

*Iratxe Pereda Vazquez
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Baziran behin etxe baten bizi ziran hiru musika tresna: Danborra, Txirula eta Gitarra. Beti haserre egoten ziran besteen musika txarra zala pentsatzen ebelako.

Egun baten, bakoitzak bere etxean bizi behar ebala pentsatu eben.

Bat-batean batuta bat agertu zan eta esan eban batutak:

—Zuen arazoa konpontzen lagundu deusuet?

Orduan, Danborrak, Txirulak eta Gitarrak esan eben:

—Bai! Baina ez da erreza izango.


Orduan batutak esan eban:

—Erreza izango da. Nik abesti bat erakutsiko deusuet eta zuek batera abes-tuko dozue baina bakoitzak bere aldia izango dau.

Orduan batutak alkarregaz zelan jo behar eben erakutsi eutsen. Horrela, Danborrak, Txirulak eta Gitarrak ondo jotzen ikasi eben.

Egun batzuk pasa eta gero, Danborra, Txirula eta Gitarra lagun onak ziren.

Momentu haretan musika tresnek orkestra bat osotu eben eta batutari kon-zertu bat eskeini eutsoen eskertzeko.



EGUN BAT GURPIL GAINEAN

Oihane Mestraitua Larraondo
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazan behin herri txiki batean bizi zan eta Jon deitzen zan mutil bat. Jonek ezin eban ibili. Nahiz eta beste gauza batzuk egiteko oso trebea izan, jaiotzaz elbarria zan. Bere bizitza gurpil-aulki batera lotuta egoan. Oso ezaguna zan herrian eta maitasun handiz tratatzen eben guztiek, baina askotan ez eben kontuan hartzen gauza asko egiteko. Umeek pentsatzen eben min hartu ahal ebalada edo ez zala kapaza gauza asko egiteko eta azkenean baztertu egiten eben. Beste alde batetik, helduek errukiz begiratzen eben eta pentsatzen eben: “Zelako pena handia ematen dauan mutil horrek”.

Joni ez jakon batere gustatzen egoera hori baina askoz gitxiago haren lagun minari, Mikeli. Mikelek baekien ezin zala horrela jarraitu bere laguna ez zalako ume txiki bat. Mikel Alkatearen semea zanez, bere aita konbentzitu eban urte haretako herriko jaietan egun berezi bat Jonen ohorez antolatzeko.

Oso ideia ona iruditu jaken herritarrei denek asko maite ebelako Jon. Handik aurrera, “Egun bat gurpil gainean” ospatuko zan. Herriko pertsona guztiek elbarritu itxura egitea erabaki eben, hau da, gurpil aulki batean pasatzea egun oso bat. Ospitale hurbil batek utzi eutsezan gurpil aulkiak guztientzat.

Eguna heldu zanean, hasieran txantxa bezala hartu eben guztiek baina orduak pasa ahala denak konturatu ziran oso zaila zala gurpil aulki batean ibiltzea. Adibidez arazo honeek egon ziran: espaloiak igotzea, ateetatik sartzea, aldapa gora joa-

tea, kale estutxoetatik pasatzea, eskailerak igo eta jaistea, apal altuetara iristea eta beste gauza asko egitea. Baina Jon onena zan danetan, saski-baloian jokatzeko, mugitzeko, espaloiak igotzeko eta jaisteko, eta abar. Hori izan zan Jonen egunik preziatuena besteak bezalakoa sentitzen zalako. Konturatu ziran Jonek besteek egiten eben berdina egiten ebalu baina modu ezberdinean.

Une haretatik aurrera herritarrek Jonen zailtasunak ulertu ebezan eta Jonek eskerrak emon eutsozan Mikeli laguntzagatik. Gauzak errazagoak izateko Jonentzat espaloiak, eskailerak, eta abar aldatu ebezan herrian. Azkenean Jon oso pozik egoan besteek beste begirada batekin begiratzen ebelako, eta inoiz ez ebelako gehiago baztertu.



Margoen kutxa

Ainhoa Villegas Rodriguez
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazan behin etxe bat eta bi ahizpa han bizi zirenak, Ainhoa eta Garazi. Haien adineko ume guztiek bezala, jostailu asko zeuzkaten eta batzuekin ez zuten jolasten. Hainbeste jostailu zeuzkaten etxean, “jostailuen gela” deitzen zen gela zegoela. Hantxe egiten zuten lo jostailu guztiek.

Baina gehien gustatzen zitzaiena neskei margotzea zen eta margo asko zeuzkaten, kolore eta mota desberdinetakoak. Amak egurrezko kutxa polit bat egin zien eta barruan gordetzen zituzten denak: arkatzak, kolorezko arkatzak, zerak, errotulatzaileak, tenperak...

Egunero margoek bizitza hartzen zuten eta elkarrekin hitz egiten zuten neskek egun horretan egin zituzten marrazkiari buruz. Margo guztiak pozik zeuden, jostailurik gustukoena ziren eta. Gau batean errotulatzaile batzuek hitz egiten zeuden elkarrekin:

—Gaur paisaia eder bat egin dugu —esan zuen errotulatzaile gorriak.

—Nik eguzkia margotu dut —esan zuen harro horiak.

—Nik itsasoa —esan zuen entzuten zegoen tenpera urdinak.

—Belarra nik—zera berde batek.

Eta horrela marrazkian egin zuten guztiek. Arkatz batek hori entzunda, esan zuen:

—Nik marrazkia egin dut.

Guztiek begiratu eta barre egin zuten.

—Zuk ez daukazu kolorerik, dena grisez margotzen duzu —esan zuen tenpera batek.

—Egia da, kolore gabe arkatzak ez zarete ezer. Guk bizia ematen diegu marrazkiei —esan zuen beste errotulatzailer batek.

Arkatza, triste eta haserre, kutxaren txoko batera joan zen ezer esan gabe. Gau horretan, denak lo egitean, arkatzek kutxatik joatea erabaki zuten ez zituztelako maite.

Hurrengo egunean, neskak lasterka gelan sartu eta kutxa hartu, zabaldu eta bilatu zituzten arkatzak marrazki polit bat egiteko, baina ez zituzten aurkitu.

—Aurkitu dituzu arkatzak? —galdetu zion Ainhoak Garaziri.

—Ez, nik ez —erantzun zuen ahizpak.

—Orduan ezin dugu margotu —esan zuen Ainhoak.

—Jolas dezagun beste gauzaren batekin. Adibidez, puzzle bat egin dezakegu —esan zuen Garazik.

—Ados —esan zuen Ainhoak.

Egun horretan margoen kutxa itxita egon zen. Hurrengo egunean berdina gertatu zen. Margoak kezkatuta zeuden.



—Dirudienez ez gara haien gustukoak —esan zuen errotulatzailer batek.

—Hainbeste jostailu izateagatik izango da —esan zuen tenpera batek.

Orduan laranja koloreko zera batek esan zuen:

—Kontuan hartu duzue ez dagoela arkatzik? Haiek gabe ezin da marraztu. Guk kolorea ematen diegu haien marrazkiei.

Denek laranja koloreko zerari begiratu zioten.

—Bai lagunak, talde bat gara eta guztiak gara inportanteak. Lehengo egunean haietaz barre egin zenuten eta joan egin dira. Itzultzen ez diren bitartean, kutxa barruan egongo gara.

Eztabaida bat izan eta erabaki zuten beraien bila joatea barkamena eskatzera.

Gau horretan gelatik bilatu zituzten, ez zen erraza izan baina azkenean aurkitu zituzten armairu baten atzean. Barkamena eskatu eta behar zituztela esan zien.

Arkatzek elkarrekin hitz egin zuten eta jai handi bat egin zuten.

Hurrengo egunean, egunero bezala, marrazki pilo bat margotu zituzten.

“Taldean lan egiten onenak gara” pentsatu zuten guztiek elkarri begiratzuz.



Pinguino esploratzailea

Ainhoa Zubiaur Arsuaga
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin pinguino bat Patxi deitzen zena. Oso trebea zen eta oso alaia.
Hain alaia zen, bertso bat asmatu zuela.

Berde, gorri eta zuria
Euskal herriko kolorea.

Mari jaia pozik dago,
jaiak direlako.

Etxebarria parkean
barrakak eta zirkoa.

Eta su artifizialak
ondo ikusten dira denak.

Joan zen leku guztietan abestu zuen. Europatik bakarrik.

Egun baten Okinawara joan eta abestu zuen baina ez zioten ulertu. Nola egin uler dezaten bertso hori? Eta ideia bat bururatu zitzaion: hiri osotik euskaldun baten bila aritzea.

Jakina! hark txineraz zekien eta txinerara itzuli zuen.

Eta Patxik hori ikasi zuen.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Irune eta bere ametsaren arazoa

Maria Estebanez Santos
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazan behin Irune deitutako neska bat 7 urte zituen. Irune Eibarren bizi zen eta berari asko gustatzen zitzaion dantza. Irunek telebistako programa batean ikusten zituen dantzariak eta berak nagusitan dantzari profesionala izan nahi zuen.



Egun batean Irunek gurasoak alkartu zituen eta haiei esan zien dantza eskola batera joan nahi zuela.

—Aita, ama, niri asko gustatzen jat dantza, ahal deustazue dantza eskola batean apuntatu?

—Ez horixe. Dantza egiten dabenez ez daukie lan egiteko irtenbiderik eta guk nahi dogu zu medikua izatea —erantzun zion aitak haserre.

Aita oso erratuta zegoen, dantzariak lan egin ahal dute musikaletan...

Irunek bere amari galdetu zion ea uzten zion baina aitak esandakoa erantzun zion.

Bi urte pasatu ziren eta Irunek 9 urte zituen. Irune herriko kiroldegian egoan, dantza eskoletara apuntatu zen eta bere diruagaz ordaintzen zituen Funkyko, Liriko eta hip-hopeko klaseak. Astelehenetan eskola ostean funky eukan eta gero liriko, martitzenetan hip-hop, eguaztenetan liriko eta eguenetan funky eta hip-hop.

Bere gurasoek ez ekiten ezer eta lanetik berandu etortzen zirenez ez zekiten Irune ze ordutan etortzen zen.

Egun batean Irunerik esan zion bere dantzako andereñoak, berbera zena 3 estilotan:



—Irene, horrela jarraitzen badozu, casting batera apuntatu behar-ko zara.

Irene asko poztu zen eta andereñoari bere gurasoekaz gertatzen zitzaiona kontatu zion. Andereñoa harrituta geratu zen kontatu zionean berak ordaintzen zuela dena eta bere aitak eta amak esaten zutela dantzariak ez zutela irtenbiderik.

Hurrengo egunean hip-hopeko klasea amaitu zenean andereñoak esan zion Irineri ideia bat zeukala eta Irunek esan zion:

—Kontatu, kontatu daukazun ideia hori.

—Gaur gauean galdetu zure gurasoei barriro ia ahal deutsuen apuntatu dantzako eskolaren batera eta esaten badeutsue ezetz, musikea jarri eta hemen ikasitako zerbait dantzatu. Adibidez lehenik lirikoa, gero hip-hopa eta azkenik funkya.

—Ondo dago.

Esan bezala, Irene bere gurasoekaz afaltzen zegoen bitartean esan zien:

—Aita, ama, ahal didazue dantza eskola batera apuntatu?

—Ezetz. Ez eta ez, ez errepikatu, zu medikua izango zara eta kito.

—Ondo da, ahal deutsuet orain gauza bat egin?

—Bale, egizu.

Irunek musika jarri zuen eta dantzatzen hasi zen baina dantza erdian bere aitak oihukatu zuen oso haserre:

—Geldi! Ez dozu dantza gehiago egingo!!!!!!!

Irene ia ia negarrez igo zen bere logelara eta eguena zenez, astelehenera arte ez eukan berriro klasea.

Astelehena heldu zen eta dena kontatu zion andereñoari. Andereñoak esan zion lasai egoteko eta klaseekin jarraitzeko.

8 urte pasatu ziren, hau da 8 urtetik 3 egon zen klaseak emoten, jada 17 urte zituen. Iruneren andereñoak Irineri “40 PRINCIPALES” musikaleko castingera apuntatzeko esan eta Irene apuntatu zan. Hurrengo egunean egingo zioten castinga.



Hurrengo egunean eskola ostean castingera joan zen eta haxe esan zioten epaimahaikoek:

—Oso ondo dantzatzen dozu eta estilo guztiak ondo daki-zuzelako musikalerako... hartuta zaude.

—Eskerrik asko —erantzun zien Irunek saltoka pozaren-pozez.

Musikala hurrengo hilabeteen estreinatzen zuten eta Irene oso pozik joaten zen entseguetara.

Gau batean bere gurasoek pentsatu eben musikalera joatea eta musikalaren estrenaldira joan ziran.

Irunek ez zekien ezer eta makilatuta zegoenez ez zuten ezagutu, baina bere aitak apur bat susmatu zuen eta etxean galdetu egin zioten. Irunek egia esan zien baina aitak ere pentsatu zuen bere alabarentzat onena zela eta gainera ondo dantzatzen zuela.

Azkenean Irineri gustatzen zitzaiona egiten utzi zioten eta berari asko lagundu zioten.



ANAIA SALGAI !!!!

Begoña Ezquerro Oses
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Badaukat argi, nire anaia salduko dut. Nekatuta nago, nazkatuta, haserretuta. Nire amak dibertigarria izango zela zioen, beragaz jolastu ahal izango nuela, bion artean trastakeriak egin ahal izango genituela, jolas baten modukoa izango zela. Baina ez, guztiz aldrebesa izan da, guztiz kontrakoa. Gainera, amak ez zidan kasurik egiten eta gure inguruko guztiek anaiari begiratzen zioten.

Amari zeozer eskatzen nion eta ez zidan erantzuten batzuetan, nigaz jolaste-ko eskatzen nion eta ez, nire nebari biberioa ematen zebilen, etxerako lanak egite-ko laguntza eskatzen nuen eta ez zeukan denborarik, nire anaiari pixoihala aldatzen zebilen; heldu zen egun bat hain haserretuta nengoela, erabaki bat hartu nuela: **ANAIA SALDUKO DOT!**

Hurrengo egunean, goiz-goizean altxatu nintzen eta Peru lagunaren etxera joan nintzen. Berari oso ondo ematen zaizkio ordenagailuak eta gertatzen zitzaida-na kontatu nion. Berak ordenagailua piztu eta web orrialde bat aurkitu zuen, gau-zak saltzen eta erosten zirenak.


Lehenengo orri zikin baten idatzi nuen ordenagailuan ipiniko nuena:

EKAITZ URIBE

11 hilabeteko umea saltzen dut. Lasaia, lotia eta oso maitagarria. Oso ule gitxikoa, baina daukan ule apurra hori kolorekoa. Begiak urdinak eta txikiak ditu. Interesatuta bazaude, deitu telefono honetara edo e-mail bat bidali behean emango dizuedan helbidera.

TELEFONOA: 94135049

E-MAILA: jonarretxe@hotmail.es



Hau esanda, ordenagailuan eskegi eta Peruri eskerrak emanda, etxera bueltatu nintzen pozik egin nuen lanaz.

Hurrengo goizean altxatu eta gero egin nuen lehenengo gauza nire korreoa begiratzeari izan zen. Baneukan email bat, ze pozik jarri nintzen!!

Kaixo Jon!!! Nire anaia nagusia (12 urte) zure anaia txikiagatik aldatzen dizut. Beti dabil jotzen eta gauzak kentzen. Aldaketa nahi baduzu, e-mail bat bidali helbide honetara:

aupaathletic@hotmail.com



Ez nekien aldatu nire anaia txikia anaia handi bategatik, ez nuelako nahi niri jotzea eta nire gauza edo jostailuak apurtzea. Pentsatzen hasia nintzen ez nuela saldu behar nire anaia txikia.

Egunak joan eta egunak etorri, ez nuen e-mail berririk jaso. Egunero egunero ikastolatik bueltan nire korreoa begiratzeko nuen, baina ezer ere ez.

Asteak igaro ziran eta supermerkatutik nentorrenean etxera heldu eta e-maila begiratu nuen. Pertsona bat zegoen erosteko prest, zabaldu eta hau jartzen zuen:

12 urteko anaia zure anaia txikiagatik aldatzen dizut. Oso majoa da, eta zugaz jolastuko du, baina ez dizu etxeko lanak egiten lagunduko eta ez da batere azkarra ikastolan. Aldaketa nahi baduzu, deitu telefono honetara edo bidali e-mail bat.

TELEFONOA: 991254303

E-MAILA: bilbokonena@hotmail.es



Ez, ez nuen nahi horrelako anaiarik. Ez bazidan etxeko lanak egiten laguntzen, ez, hobeto ez.

Beraz, ez nion erantzun e-mail horri. Asteak joan, asteak etorri eta ez nuen jaso e-mailik.

Ikastolatik nentorren egun batean, ama ordenagailuan itxaroten neukan. Hori ez zen seinale hona:

—Etorri hona Jon, mesedez —esan zidan amak haserreturik.

—E..., E..., E... —esan nuen lotsaturik.

—Zelan ipini duzu salgai zure anaia! Burutik eginda zaude! Ez duzu saldu ezta?? —oihukatu zidan amak.

—Ez ama, baina nekatuta nago... Beti zabiltza beragaz eta inoiz ez didazu kasurik egiten. Gainera ia jende gehienak berari egiten dio kasu eta ez niri. Horregatik nahi nuen aldatu nire anaia txikia nagusi baten truke, horrela zu nigaz egongo zinateke eta kasu handiagoa egingo zenidake —azaldu nuen nik.

—Parkatu laztana, baina hain lanpeturik egon naiz ez dudala jakin zelan sentitzen zinen. Oso dibertigarria da anaia nagusia izatea, anaia txikia beti egongo delako zuk egiten dituzun gauzak ikasten eta asko maite izango zaitu, bere **ANAIA NAGUSIA** zarelako!! —azaldu zuen amak.

Amaieran, nire anaia salgai egoan kartela internetetik kendu nuen eta postal bat idatzi nion zenbat maite nion adieraziz.

Kaixo anaiatxo:

*Amak gaur hitz egin didan arte ez naiz konturatu ze dibertigarria den anaia txiki bat eukitea. Hasieran uste nuen enbarrazu bat izango zinela nire bizitzan, baina ez, orain ez dut hori uste aldrebes baizik, **ASKO MAITE ZAITUT!!***

Hemendik aurrera oso ondo konponduko gara eta bion artean hainbat eta hainbat gauza egingo ditugu.

AMAIERA!

Liburu magikoa

Eneritz Santamarina Pastor
Felix Serrano LHI

Baziren behin bi neba-arreba, Laura eta Gorka izenekoak. Laurari asko gustatzen zitzaion irakurtzea eta Gorkari batere ez.

Egun batean, Gorka klasean zegoela, andereñoak Gorkari ariketa ozen irakurtzeko eskatu zion. Gorka irakurtzen hasi zenean, andereñoa Gorkak bere adinerako nahiko astiro irakurtzen zuela konturatu zen. Orduan, andereñoak Gorkari etxean asko irakurri behar zuela esan zion. Gorka oso kezkatuta iritsi zen etxera andereñoak esandakoa gogoratzen. Laurari, bere neba hain kezkatuta ikustean, jakin-mina sortu eta nebari zer gertatzen zitzaion galdetu zion. Nebak Laurari gertatutakoa kontatu zionean, Laurak zera erantzun zion:

—Irakurtzea ez da hain txarra, eta batzuetan liburuan zaudela iruditzen zaizu.

—A bai! Ze dibertigarria! oraintxe bertan irakurtzen hasiko naiz —erantzun zion Gorkak.

Gorka, bere logelan liburuak ez zituenenez, liburutegira jaitsi zen, liburu bat hartzeko asmoz. Liburua hartu ondoren etxera itzuli zen eta liburua irakurtzen hasi zen. Ordu asko igaro ziren eta Laura kezkatzen hasia zen bere nebarengatik. Orduan Gorkaren logelara joan zen. Logelara ailegatu zenean, bere neba han ez zegoela



konturatu zen eta etxe guztitik begiratzen hasi zen. Ordu erdi bat zeraman nebaren bila, eta oraindik arrastorik ez.

Bitartean Gorka Edurne Zuriren liburuan zegoen, bertatik atera ezinik. Laura oso kezkatuta zegoen eta Gorkaren ohean jesarri zen, negar zotinka. Orduan, Gorkaren liburuari begirada bat bota eta, bat-batean orrialde batean, bere neba ikusi zuen. Denbora asko pentsatzen egon ondoren, bere nebaren liburua magikoa zela bururatu zitzaion eta irakurtzen zuten pertsona guztiak bertan sartzen zirela. Berehala, Laura liburua irakurtzen hasi zen eta minutu batzuetan liburuan agertu zen. Bere nebarekin topatu eta denbora luzean liburutik nola atera pentsatu zuten. Eztabaida luzean egon ondoren, Edurne Zuriren etxera joatea bururatu zitzaion. Pentsatutakoa berehala egin eta Edurne Zuriren etxera joan ziren. Edurne Zuriri gertatutakoa kontatu ondoren, Edurne Zurik hau esan zien:

—Liburu honetan sartu zarete, ipuin honetako sorginak aspaldi-aspaldian sorgingindu zuelako, irakurtzen ari ziren ume guztiak bertara sartzeko eta berak esklabo



moduan ume horiek izateko. Hori egitea oso ideia txarra zela esan nion nik, umeak ez baitiote ezer egin. Baina berak umeak esklabotzat ez hartzeko salbuespen bat zegoela esan zuen.

Orduan, Laura eta Gorka Ipurterre sorginaren etxera abiatu ziren. Sorginaren etxean sartu bezain pronto, sorgina aurkitu eta ea zein zen salbuespena galdetu zioten. Sorginak honela erantzun zien:

—Ehun bitxilore ekarri behar dizkidazue, eta horretarako ordu bat baino ez duzue. Bestela nire esklabo bihurtuko zarete.

Bi neba-arrebak, beldurraren beldurrez, gertu zegoen zelai batera abiatu ziren. Zelaira heldu eta sakabanatu egin ziren bitxiloreak hartzeko. Ordu erdi bat igaro zenean 30 bitxilore baino ez zituzten. Momentu horretan, basoko animaliak etorri ziren bi neba-arrebei laguntzeko asmoz. Animalien laguntzari esker ez zuten hainbeste denbora galdu eta 50 minutu igaro ondoren prest zeuden sorginari loreak eramateko. Sorginaren etxera heldu zirenean, sorginari loreak eman zizkioten eta sorginak hauxe esan zuen:

—Ja, ja, ja, sinestu egin didazue! Nik ez dut inoiz esandakoa betetzen. Horrexegatik nire esklabo bihurtuko zarete.

Baina Merlin magoa agertu zen eta, sorginari errieta egin ondoren, hitz magiko batzuk esan eta Laura eta Gorka etxean agertu ziren.

Geroztik, ez dute Edurne Zuriren liburua ezta ukitu ere egin. Orain poz-pozik bizi dira.

Egun bat museoan

*Zaloa Badiola Perez
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

Kaixo!
Ni Nami naz eta orain kontatuko deusuedan istorioa nire lagun Katagaz gertatutakoa da. Goazen ba istoriora!!!

Egun normala zan. Zortzietan altxatu, gosald, haginak garbitu eta ikastolara joan nintzan. Ikastolarako bidean nire amets arraroan pentsatzen ninoan eta bat-batean norbaitek, plaza atzetik, oihuka egin eustan:

—Nami!!! Itxaroistazu!!!

Eskumara begiratu neban eta ez neban inor ikusi, gero ezkerrera eta konturatu nintzan niri oihuka egoana Kata zala. Berari itxaron eta aurrera jarraitu genduan.

Gelara heldu ginanean, andereñoa agertu zan irribarre handiategaz eta holan esan euskun:

—Sorpresa bat daukat zuentzat... Museora goaz!!! Badakit, batzuek pentsatuko dozue aspergarria dala, baina gauza asko ikasten dira.

Holan egin genduan ba. Jakeak hartu eta autobusera abiatu ginan. Museora heldu ginanean, bikoteka jarri eta mutil bat etorri jakun azaltzen zergaitik egin zan museo eta beste gauza asko... baina... zelako txapa!!! Ia lokartu egin nintzan! Azkenean amaitu eban. Kata eta ni aurreneko gelara joan ginan eta koadro baten aurretik pasa ginanean... SIUMMM!!! Koadro barruan sartu ginan.



Koadroren barruan sekulako bistak egoazan. Aurrerantz abiatu ginan eta landa berde-berde bat egoan. Han geratu ginan goiz guztian baina tripak, ordurako, irrintzika egozan. Nahikotxo pentsatu ondoren, basorantz abiatzea erabaki genduan. Apur bat ibili eta gero txabola bat ikusi genduan. Ez genkian zer egin eta, pixkatxo bat pentsatu ondoren, barrura sartzea erabaki genduan.

Barruan Nekane izeneko neska bat jaten egoan. Emon ahal euskun galdetu geuntson eta baietz erantzun eban. Kriston platerkada pure jan genduan, gero eskerrak emon geuntsozan eta aterantz abiatu ginanean gugaz etorrela esan euskun Nekane.

Hirurak herrirantz joan ginan kanta-kantari. Herrian baegoan errege berekoi bat eta printzea ere bai.

Herrira heldu bezain laster lagun piloa egin genduzan, baina danek eukin arazo bat, eta arazo bardina gainera. Eurak eukin diru guztia erregeak kendu eutsen. Lagunekin berba egin eta gero, erregearen gaztelura joatea pentsatu genduan eta, esan eta egin, han joan ginan hirurak gaztelura.

Gazteluaren lorategian Mikel printzea egoan eta Nekane ikusi ebanean, beragaz bete betean maitemindu egin zan. Baina printzeak ez eutson kasurik egin.

Atetik sartu ginanean, lehenengoko gela tronuarena zan eta tronurantz aurreratu ginan. Erregeari ia diru pixka bat emon ahal euskun galdetu geuntson baina berak ezetz erantzun euskun. Beno... gu saiatu ginan baina...



Nekanek ideia bat euki eban:

—Mikeli esango deusat bere aitari esateko mesedez dirua emoteko.

Eta han joan zan Nekane, Mikelengana.

Mikel, Nekane barriro ikustean, beragaz maiteminduta egoala konturatu zan eta baietz esan eutson. Bere aitari dirua eskatu eta erregeak emon eutson. Mikelek guri emon euskun eta guk herriko lagunei.

Gure lagun berriarekin jolasten gelditu nahi genduan baina gurasoen falta geneukan. Horregaitik koadrora bueltatu ginan. Nekaneri agur esan eta beste batean etorriko ginela zin egin geuntson.

Salto txikiATEGAZ museora sartu ginan eta justu joateko ordua zan.

Ez genduan ezertxo konta. Zertarako? Inork ez eban sinestuko, baina... egun horretatik aurrera museora barriro joateko deseatzan gagoz.

AMAIERA

★ Haizea eta bere bolaluma ★

Ane Santisteban Garcia
Berrio-Otxoa HLBHIP

Ipuin bat hastea gauzarik zailena da. Beno, badakit “Bazen behin batean” erabili ahal dut. Baina niri ez zait gustatzen hasiera hori, ia ipuin guztietan dagoelako.

Orduan, nola hasiko naiz? Ah! Badakit! Lehenengo, nor naizen kontatuko dizuet. Hamaika urteko neska alaia eta arrunta naiz, Haizea izenekoa. Irakurtzea, bideokontsolarekin jolastea, patinatzera eta, noski, nire lagunekin egotea gustatzen zait. Nire amak imajinazio bizia dudala esaten dit eta istorioak asmatzen ditut. Baina hemen kontatuko dizuedana egia borobila da. Dena orain dela hilabete bat edo gertatu zen. Hasieratik hasiko naiz.

Klasean hiruhilabeteko emaitzak eman zizkidaten. Beti bezala, nahiko onak izan ziren eta nire gurasoek bolaluma morea oparitu zidaten. Nik poz handia nuen oparia hartzeagatik eta hartu bezain laster nire koadernoan idazten hasi nintzen. Konturatu nintzen idaztea errazagoa zela. Esaldiak ia bakarrik agertzen ziren. Baina nik pentsatu nuen normala zela, Hannah Montanari buruz idatzi nuelako.

Hurrengo egunean parkera joan nintzen eta nire lagunekin topo egin nuen. Han zegoen Nahia:

—Kaixo Haizea! —esan zidan.

—Kaixo Nahia! Zer daukazu eskuan?
—galdetu nion.

—Nire telefono mugikor berria —eran-
tzun zidan—. Nire gurasoek oparitu didate
klaseko emaitza onak ateratzeagatik.

—Ze zorte ona! Niri bolaluma bat
bakarrik eman didate —esan nion.

—Ja, ja, ja! —Nahiak barre egin
zuen— Zelako oparia!

—Aizue, Ane eta Irene! Badakizue
zein den Haizearen oparia klaseko emai-
tzengatik? —Nahiak oihu egin zuen.

—Zer? —galdetu zuten.

—Bolaluma besterik ez! Ja, ja, ja! —ihardetsi zien Nahiak.

—Benetan? —hots egin zuen Irenek— Niri Nintendo DSI oparitu zidaten.

—Eta niri Hannah Montanaren PSP oparitu didate. Gizajoa! Ze zorte txarra
duzun! —erantsi zuen Anek.

Ni amarengana joan nintzen eta etxera itzultzeko eskatu nion. Amak zergatik
galdetu zidan eta nik hotz nintzela erantzun nion. Ez nion nire amari egia esan
nahi.

Banekien txarto zegoela besteek zutenaren gogoia edukitzea. Baina ni koko-
teraino nengoen nire klaseko emaitzak onenak izan eta nire oparia txarrena izate-
az. Horrexegatik, etxera heldu bezain laster, negar egiten hasi nintzen eta bolalu-
ma berriarekin honako hau idatzi nuen:

“Bolaluma hau gorrotatzen dut.

Zergatik oparituko zidaten lelokeria huts hau?”

Hurrengo egunean nire amak aurkitu zuen nik idatzitakoa eta zergatik idatzi
nituen hitz horiek galdetu zidan. Ni, ia negarrez, hasi nintzen parkean gertatutakoa
azaltzen. Nire amak ez egiteko negar eskatu zidan. Gainera, bolaluma berezia zela
esan zidan. Nik ez nuen sinestu eta bolaluma normala zela erantzun nion. Hori dela
eta, nire logelara joan nintzen eta nire koadernoan idazten hasi nintzen. Berriro
konturatu nintzen idatzitako istorioa arin eta errazago agertzen zela orrietan.

Bat-batean txirrinak jo zuen. Atea irekitzean, han zegoen Lidiaren ama eta
galdetu zidan ea nire ama etxean zegoen. Nik baietz erantzun nion eta amaren bila
joan nintzen. Ama atera joan zen eta auzokidearekin hizketan hasi zen. Nire loge-
latik ez nien ia entzuten. Baina gauza larri bat zirudien, nire amak honako hau esan
ziolako:



—Ez egin negar. Utzi Lidia etxean. Ziur nago dena konponduko dela.

Ni intrigatua nengoen. “Ze demontre gertatu da?” galdetu nion neure buruari. Azkenean, Lidiaren ama joan zen eta nire amak sukaldara joateko esan zidan.

—Ama, zer gertatu da? Lidiaren amak negar egin du —galdetu nion amari.

—Ezer ez, Haizea. Helduen gauzak dira. Laster Lidia etorriko da zurekin jolasteko. Espero dut zuk primeran pasatzea —esan zidan.

Ordu laurden pasatu eta gero, txirrinak berriro jo zuen. Atea ireki nuen eta han zegoen Lidia bere panpinarekin.

Nire logelara jolastera joan ginen. Nahiz eta Lidiak nik baino bi urte gutxia go izan, gu lagun onak gara eta elkarrekin egotea gustatzen zaigu.

Hasieran jolasez jolas gindoazen. Alabaina, ordu bat pasatu eta gero, Lidia aspertuta eta triste samar zirudien. Beraz:

—Zer gertatu zaizu, Lidia? —galdetu nion.

—Ezer ez —erantzun zidan.

—Ez zaizu gustatzen jolas hau? Aldatu nahi duzu? —berriro itaundu nion.

—Ez, lasai. Triste nago nire aitagatik eta ez dut gogorik jolasteko. Badakizu nire aita ospitalean dagoela atzotik eta horrexegatik amak negar egiten du egun osoan. Hori alde batera utzirik, atzo amak amamari dirurik gabe gaudela esan ziola entzun nuen. Beraz, dena txarto doa —kontatu zidan Lidiak.

—Ez nekien hori. Ez kezkatu, laguna! Laster medikuek sendatuko dute zure aita; berriro aita lan egitera itzuliko da eta orduan dena konponduko da —ihardetsi nion.

Hitz egin eta gero, Lidia hobeto zegoen eta jolasten jarraitu genuen. Hala ere, ez zen Lidiaren eguna. Ez dakit nola, baina Lidiaren panpinaren besoa apurtu zen. Konpontzen saiatu nintzen. Hala eta guztiz ere, ez nuen lortu eta gainera hanka bat apurtu zen.

—Zer egin duzu? —negar egiten hasi zen Lidia.

—Ezer ez —erantzun nion.

—Nire panpina apurtu duzu —esan zidan oihuka.

—Ba, ba, ba... panpina ospitalera eramango dugu besoa eta hanka sendatzeko —ihardetsi nion.

—Bai leloa! Ez da existitzen panpinentzako ospitalea! —erantzun zidan Lidiak.

—Bai, badago. Behin, nire Baby Borni besoa apurtu zitzaion eta guk ospitalera bidali genuen posta bidez. Hilabete bat pasatu eta gero etxera itzuli zen eta, begira, orain ondo dago —gaineratu nion.

Lidiaren ustez, gezur hutsa zen. Zorionez, nire ama logelara etorri zen eta Lidiari egia zela esan zion. Hala ere, ama konturatu zen Lidiaren panpina konponezina zela beso barruan panpinaren parterik garrantzitsuena zegoelako. Ni txarto sentitu nintzen, Lidiak panpina hori besterik ez baitzuen. Benoa, egia esateko Lidiak



hiru panpina gehiago zituen, baina panpina horiek nahiko zaharrak ziren eta ia zaborretara botatzeko zeuden. Eta han nengoen ni, Lidiaren panpina berriarekin hanka eta besorik gabe. Zerbait bururatu behar zitzaidan beste panpina berri bat Lidiarentzat lortzeko.

Lidiak negar egiten jarraitu zuen eta horrexegatik amak kalera joatea proposatu zigun. Corte Inglesera joan ginen eta seigarren solairura igo ginen jostailuak ikusteko. Panpinak begiratu genituen, baina denak garestiegiak. Nik bost euro neuzkan itsulapikoan eta panpinarik merkeenak hamabi euro balio zuen. “Nola lortuko dut behar dudana dirua batzea?” galdetu nion neure buruari. Etxera itzuli ginen berehala eta jostailuak ikusi ondoren, Lidiak negar egiteari utzi zion.

Hurrengo egunean Lidiaren arazoari buruz pentsatzen jarraitu nuen, irtenbidea aurkitzeko. Lehenengo, nire etxean lan egitea pentsatu nuen. Baina behar nuen dirua lortzeko denbora gehiegi pasatuko zen. Geroago, bururatu zitzaidan

amari eskatu ahal niola. Horrela egin nuen, baina amak erantzun zidan ezinezkoa zela Lidiaren ama haserretuko zelako, guk panpina berria erosten bagenion. Parkean nire lagunekin ere hitz egin nuen dirua batzeko. Baina denon artean hamaika euro genituen. Beraz, ez zen nahikoa panpina lortzeko. Gainera, Lidiari berrogeita bost euroko panpina gustatu zitzaion. Orduan, ez zuen merezi hamabi euroko panpina erosteak.



Bat-batean, irratia entzuten nuela, irtenbidea aurkitu nuen. Juguettos izeneko dendak lehiaketa bat egiten zuen Bilboko umeentzat eta saria jostailu bat aukeratzeko zen. Zer egin behar nuen lehiaketa irabazteko? Idazlana besterik ez! Hori dela eta, nire logelara joan nintzen arin eta bolaluma berria eta koaderno hartu nituen idazlana egiteko. Nahiko urduri nengoen eta ez zitzaidan ezer bururatzen. “Pentsa ezazu!” agindu nion neure buruari.

Oraindik ez dakit nola, baina hitzak agertu ziren koadernoan idazlanik politena osatzen. Bolalumak bakarrik idatzi zuen! Niri lotsa eman zidan idazlana aurkeztearekin. Baina ezin nuen ipini idazlanaren egilea bolaluma zenik! Orriak eskutitzaren azal barruan sartu nituen eta Juguettos dendara joateko eskatu nion amari. Amak ez zuen joan nahi, baina konbentzitu nuen behar-beharrezkoa zela esanda. Horrela egin genuen eta dendan nire idazlana bota genuen.

Egun batzuk pasatu eta gero, telefonoak jo zuen eta nitaz galdetu zuten. Oso urduri hartu nuen telefonoa eta, badakizue nor zen? Bai! Juguettos dendako saltzailea lehiaketa irabazi nuela esanez. Ni pozik oihuka hasi nintzen. Nire ama ere oso pozik zegoen nik irabazteagatik eta nirekin etorri zen saria jasotzera.

Saltzaileak zer nahi nuen galdetu zidan eta nik, dudarik gabe, Lidiaren panpinarik gustukoena eskatu nuen. Amak, harrituta, ez zuen sinesten eta galdetu zidan zergatik aukeratu nuen opari hori.



—Nik ez dut idazlana egin, bolalumak baizik. Gainera, jostailu pilo bat dauzkat eta Lidiak ia ezer ez. Ziur nago gustatuko zaiola eta jolastuko duela —esan nion.

—Harro nago, laztana —erantzun zidan amak.

Etxera heldu bezain laster Lidiaren bila joan ginen, panpina ematera. Inoiz ez dut ahaztuko Lidiaren aurpegia panpina jasotzean. Aurpegi hori nire benetako saria izan zen.

Eta hau da kontatu nahi nizuena. Beraz, hitz bat besterik ez zait falta idazteko:

AMAIERA

KOMUNAREN SEKRETUA

Nekane Sagredo Aranda
Berrio-Otxoa HLBHIP

Bazen behin Paula izeneko neskatxo txiki bat. Paulak aspalditik utzi zion pixoihalak erabiltzeari, horregatik erabiltzen zuen handien komuna. Lehenengo egunetik galdetzen zuen zer zegoen komunaren barruan eta beti pentsatzen zuen aztertu behar zuela. Baina komunera joateko prest zegoenean presaka hasten zen eta begiratzea ahazten zitzaion. Paulak beti gogoratzen zuen miatzea, baina bere gurasoek esaten zioten bere gauzak egin eta gero katetik tira egin behar zuela.

Egun batean ez zuenez komunera joateko gogorik, begiratzera joan zen. Orduan tapa irekitzeko prest zegoenean pentsatu zuen: “Eta ezer ez badago? Zer egongo da?”

Zein izan zen bere ezustekoa... ura bakarrik zegoela ikusirik. Hori ikustean bakarrik bururatu zitzaion “eeeeoooo!!!” oihukatzea, ea zer gertatuko zen ikusteko. Momentu horretan entzun zuen urrutitik:

—Deitu al dit inork?

Paulak izututa ihes egin zuen bere ahizpa Anari deitzera.

—Zer gertatzen zaizu Paula? —galdetu zion.

—Ana, —esan zuen oso beldurtuta— lehen komunean ahots bat entzun dut.

—Horiek tontakeriak dira —jarraitu zuen Anak.

—Bai egia da —esan zuen Paulak.

—Benga, goazen ikustera...

Orduan Paula eta Ana komunera joan ziren ea zer zegoen ikustera.

Heltzean oso haserre zegoen Ana bere ahizpa txikiarekin, ez zuelako ezer ikusi, baina badaezpada esan zuen:

—Ba al dago inor?

Orduan beste ahots bat entzun zen, baina Ana oso haserre zegoen entzuteko.

Paula komunean negar egiten geratu zen ahots bat entzun zuela konbentzita. Momentu horretan munstro itsusi bat atera zen komunetik esaten:

—Zer gertatzen zaizu? Zergaitik zaude negar egiten?

Paulari begiak argitu zitzaizkion munstro itsusi hori ikustean. Paulak oso gutxi zekien munstroei buruz, zekiena bere ahizpa Anak erakutsi zion, baina inoiz ez zioten esan hain txarto usaintzen zutenik.

—Kaixo, Paula naiz —esan zuen oraindik negar egiten.

—Nik Sudurbeltz dut izena eta munstro magiko bat naiz.

Sudurbeltzek Paulari kontatu zion maitagarri batek zigortu zuela komunean bizitzera gaiztoa izan zelako, baina Paulari oso majoa eta atsegina iruditu zitzaion. Paularen kezka handia zen, nola arnastu ahal zuen uraren azpian, baina Sudurbeltzek esan zion munstro magiko bat zenez gauza asko egin ahal zituela bere gorputzarekin.

—Zergatik ez zara komunetik lehenago atera? —galdetu zion neskatxoak.

—Komunetik ateratzeko neska batek oihukatu behar zuelako eta ez du inork egin —azaldu zion.

Sudurbeltzek eskerrak eman zion Paulari eta joateko prestatu zen.

—Baina zergatik zoaz?

—Nire herrira joan behar naizelako, bestela zurekin geratuko nintzateke.

—Mesedez geratu hemen, ez zait inporta, baina dutxa on bat hartu behar duzu —esan zuen Paulak.

—Ez, ezin dut eta orain joan beharra daukat.

Paula oso triste geratu zen Sudurbeltzek bere herrira joan nahi zuela jakitean, baina Sudurbeltzek Paula lasaitu zuen inoiz ez zuela ahaztuko esanez.

Hori esatean munstroak bere gorputz iletutik ile bat kendu eta Paulari eskuan lotu zion esaten:

—Ez zaitut ahaztuko.

Paulari irribarre handi bat atera zitzaion eta besarkada bat eman zion Sudurbeltzeri. Munstroak komunaren atea ireki zuen eta korrika joan zen, Paula agurtzen zuen bitartean.

Paulak ez zekien zer egin Sudurbeltz joan eta gero, baina komunean zegoenez txiza egiteko aprobetxatu zuen. Amaitzean jantokira joan zen.

Jantokian bere gurasoak zeuden eta kontu berdina kontatu zien:

—Munstro bat ikusi dut! Munstro bat ikusi dut!

—Baina nola ikusi duzula munstro bat? —galdetu zion bere amak.

—Egia da, oraintxe bertan hemen egon da.

—Aaaaaaaaaah!!! Badakit nor zen —oihukatu zuen amak.

—Iturgina zen!!! Ziur nago.

Baina Paularen gurasoek ez zekiten beren alaba egiazko munstro batekin egon zela eta ez zela iturgin bat.

Ordutik hogeit hamar urte pasatu dira eta Paulak ez dio inori kontatu.

AMAIERA

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Ohe azpiko atetxoa

*Alejandro Zabala Bernaola
Artxandape Ikastola HLBHIP*

Bazen behin Josetxo deituriko 10 urteko ume bat, bere ama, aita eta Anerekin, bere arrebarekin, bizi zena. Josetxok arazo bat zuen: irakurtzea ez zitzaion batere gustatzen.

Josetxo ez zen oso altua, hile beltzarana zeukan eta begi marroiak. Gehien gustatzen zitzaiona makinetan jolastea zen; ez zuen inoiz ere irakurtzen; jakin bazekien, baina ez zion ezertarako balio. Ahaztu zait esatea Josetxori asko gustatzen zitzaiola esploratzea.

Anek, berriz, hile horia zeukan eta begi marroiak. Baina honi, berriz, asko gustatzen zitzaion irakurtzea; milaka eta milaka liburu irakurtzen zituen.

Duela gutxi, etxez aldatu ziren eta Josetxok oraindik ez zuen etxea oso ondo ezagutzen, eta horregatik etxeari bueltak eta bueltak ematen ari zen.

Bere logelan pilota batekin jolasten zegoela, bat-batean pilota ohe azpira joan zitzaion. Orduan, Josetxo pilotaren bila joan zen. Burua ohearen azpian zuela, gauza distiratsu bat ikusi zuen.

Txanpon bat zela pentsatu zuen, eta hartzea bururatu zitzaion. Hartzen saiatu zen, baina lurrera itsatsita zegoela konturatu zen. Hori oso arraroa iruditu zitzaionez linterna bat hartzera joan zen. Linterna hartuta ohe azpian sartu zen. Ohe azpian zegoela linterna piztu eta gauza distiratsu hori atetxo baten eskulekua zela

konturatu zen. Josetxo oso esploratzaile handia zenez atea zabaltzea eta bertan zer zegoen ikustea bururatu zitzaion.

Atea zabaltzean eskailera batzuk ikusi zituen eta haietatik jaisten hasi zen. Eskailerak harrizkoak ziren eta oso zaharrak; gainera horman hainbat argizari zeuden itsatsita.

Eskailerak bukatzean atetxo bat agertu zen. Josetxok, orduan, bi aldiz pentsatu baino lehen atea zabaldu eta... Ez zegoen ezer! bakarrik logelatxo bat mahai batekin eta liburu bat haren gainean. Ha! eta aulki bat ere bazegoen.

Josetxori hori oso arraroa iruditu zitzaion. Orduan aulkian eseri zen eta liburua zabaldu zuen. Liburua zabaltzean orriak oso azkar mugitzen hasi ziren haien kabuz. Geroago argi zuri bat ateratu zen eta Josetxo liburuan sartu zen.

Bat-batean, itsasontzi batean agertu zen, baina hau ez zen itsasontzi normala: egurrezkoa zen, eta ez zeukan motorrik oraingo itsasontziak bezala, hainbat marinel zeuden arraunean, gutxi gorabehera, sei alde bakoitzean.

Denbora pasata gizon altu bat etorri zitzaion eta honako hau esan zion:

–Zu, zer egiten duzu hemen? Ez zaitut gogoratzen, baina berdin da itsasontziko zorua garbitzeko baliagarria zara.

–Baina ni ez naiz hemengoa, ez dakit zergatik nagoen hemen... –Josetxok.

–Hori niri berdin zait! Tori zoru-garbigailu hau eta hasi garbitzen zorua.

–Baina....

–Ez esateko ezer! Garbitzen hasteko eta utzi bakean!

–Ongi da –Josetxok.

Garbitzen ari zela marinel bat etorri zitzaion eta beste hau esan zion:

–Ez egin kasurik, itsasontziko kapitaina da eta...

–Bai, baina, non nago? Bat-batean hemen agertu naiz.

–Kar-kar-kar! –barre egin zuen marinelak.

–Ez dakizu non gauden? Ahab kapitainaren itsasontzian gaude. Itsasontzi hau ez da itsasontzi normala, baleak harrapatzeko itsasontzia baino. Orain Ahab oso umore txarrez dago Moby Dick izeneko bale zuri baten ondorioz bere hanketako bat galdu zuelako. Orain Moby Dicken bila goaz, Ahab kapitainak justizia nahi baitu.

Orduan Josetxo berehala konturatu zen bere arrebak irakurritako liburu baten barruan sartuta zegoela, Moby Dicken liburuan.

–A, bai, orain gogoratzen dut. Beno, nik garbitzen jarraitu behar dut. Eskerrik asko –honela esan zion Josetxok, ezer txarra ez pentsatzeko berataz.


Garbitzen zegoela bat-batean marinelak oihukatzen hasi ziren.

–Ahab, Ahab! Moby Dick agertu da berriro!

Orduan marinel guztiek arpoiak hartu zituzten eta bale zuriari botatzen hasi zitzaizkion. Balea itsasontziari kolpeak ematen hasi zen, eta Josetxo uretara jauzi zen.

Josetxok beldur handia zuen, dena beltz bihurtu eta egurrezko zaldi erraldoi baten aurrean agertu arte.

Berarekin beste hainbat pertsona zeuden. Denak zeuden lerro luze batean. Lerro haren aurretik gurdi handi bat pasatzen ari zen ezpatak eta horrelakoak banatzen. Horrek klasean emandako zerbait gogorazi zion.



Geroago ezpatak eta beste arma batzuk banatu zituztenean gerlari guztiak egurrezko zaldi erraldoian sartu ziren.

Gerlari guztiak zaldian sartuta zeudenean, ezpatak banatu zituen gizonak ikusi eta hau esan zion:

–Zu, mutiko, zer egiten duzu hemen?

–Ba... Egia badiotsut, ez dakit.

–Ez du inporta, zerbait egiteko emango dizut. Tori ezpata hau, sartu zaldira eta bertan dagoen gerlari batek ateratzeko esaten duenean atera hortik eta aurrean aurkitzen duzun guztia apurtu eta su eman.

–Ongi da –Josetxok.

Zaldian sartu eta orduan gogoratu zen zein zen ipuin hori: Aqueotarren egurrezko zaldi erraldoia zen; orain Troiara zihoazen eta gauean dena erre eta apurtu beharko zuten. Hori ikastolan landu zuen pasa den hilabetea, horregatik gogoratu zen zuen.

Zaldiaren barruan denbora luzea igaro ondoren, bat-batean, mugitzen zirela konturatu ziren. Troiaren inperioaren barruan zeuden.

Orduan gaua heltzean, gerlarietako batek ateratzeko esan zuen; gerlari guztiak zalditik atera eta gauzak erretzen eta dena apurtzen hasi ziren, hildakoak ahaztu barik. Guda aurrera zihoan bitartean Josetxok zaldiaren barruan jarraitzen zuen gertatzen ari zena ikusten.

Dena ondo zihoan, Aqueotarrak irabazten ari ziren eta berari ez zioten ezpatarekin gorputza zeharkatu, baina bat-batean Troiar gerlari bat zaldian sartu eta bere ezpataren eskulekuarekin Josetxori buruan eman zion. Horren ondorioz, zora-biatu eta lurrera jausi zen.

Berriz ere, dena beltz jarri eta liburua aurkitutako gelan agertu zen. Ondoren konturatu zen zer gertatu zitzaion: ez zen istorioetan sartu, baizik eta irakurtzen zihoan bitartean istorioaren barruan egongo balitz bezala bizi izan zuen.

Handik aurrera Josetxok irakurtzea gogoko izan zuen; gainera orain ez zuen batzuetan bakarrik irakurtzen, baizik eta egunero. Eta hori gainera ez zen gauza bakarra; etxean zarata handia izanez gero, edo kontzentratu nahi bazuen, bere ohe azpiko atetxoa zabaltu eta eskaileren amaieran zegoen gelan irakurtzen edo etxerako lanak egiten zituen.

Argirantz joanda

*Nerea Romero Corcuera
Miguel de Unamuno BHI*

Esnatu egin naiz. 12:30ak dira. Nire inguruan bakarrik zuria ikusten dut. Ama negar bizian dago, inoiz ez dut hain triste eta etsita ikusi. Ni azken egun hauetan baino hobeto sentitzen naiz, ohetik altxatzeko energiarekin nagoela uste dut eta halaxe egin dut. Amarengana hurbildu naiz, zer gertatzen zaion galdetzera, baina erantzunik ez. Behin eta berriz saiatu naiz berarekin hitz egiten, baina egongo ez banintz bezala tratatzen nau. Ez dakit zer egin; ez dakit zer galdetu; nirekin haserretu ote da?

Galduta sentitzen naiz, berak eserita jarraitzen du eta ni bere alboan zutik egon arren, ez du ezta begirada altxatu. Ez dakit zer gertatzen den, baina oso larria izan behar du.

Medikua ailegatu da; berarekin hitz egiten saiatu naiz, baina ezer ez; ez dit ezta begiratu ere egin. Orain ni ere haserre nago. “Ez dit inork kasurik egingo? Minik sentitzen ez dudanean eta ohe honetatik altxatzea lortu dudanean ez amak ez medikuak ere ez didate kasurik egingo?” erantzunik gabeko galdera hauek burura etorri zaizkit.

Gelatik atera naiz, kezkatuta eta erantzunen bila, baina inork ere ez dit kasurik egiten, ikusezina naizela dirudi. Egoera honetaz nekatuta nago eta erantzunak behar ditut zorotasun honetatik ateratzeko, baina nora joan erantzun eske? Gelara itzultzea erabaki dut, nire amaren bila. Egia esan, azalpen baten bila gehienbat.

Ailegatu naiz eta nire amak negarrez jarraitzen du, urduri dagoela dirudi. Oso gogorra egiten zait horrela ikustea, baina berari laguntzeko bide bakarra zer gertatzen zaion niri azaltzea dela uste dut. Zergatik jarraitzen du niri kasurik egin gabe?

Momentu honetan medikua sartu da eta nire amarekin hitz egiten hasi da:

–Ezin izan dugu ezer egin. Barkatu.

Orain ulertu dut dena. Malko bat sentitu dut jaisten nire masailetik. Nire azken malkoa dela ohartu naiz. Azkena dela dakit, gogorra izan behar naizelako, nigatik eta nire amagatik. Biok ez dugulako merezi sufritzea, eta orain beranduegi delako ere bai.

Azken besarkada eman diot nire amari eta argirantz abiatu naiz, ezerk ez nauelako mundu honetara lotzen, nire denbora hemen amaitu delako. Badakit beti bizirik egongo naizela nire amaren bihotzean, eta badakit bera ere betirako egongo dela nire bihotzean.



Booing-a azalean zuen mutikoaren egunerokoa

*Edorta Martinez Gomez
Artxandape Ikastola HLBHIP*

Istorio hau duela urte batzuk hasi zen. Ezer kontatzen hasi baino lehen nire izena Dani dela esan behar dizuet, eta adin zail horretan nagoela. Badakizue, 13 urterekin dena da konplikatua, eta badirudi mundu guztia gure kontra dagoela. Hori dela eta, egun horietako gertakizun guztiak eguneroko batean idaztea erabaki nuen. Horrek barruko samina kanporatzen laguntzen ninduen.

Nire egunerokoa 2009ko irailaren 8an hasi nuen, egun horretan nire ikastolako egunak zorigaitz bilakatu zirelako. Izan ere, ikastetxe honetan egon baino lehen alaia nintzen, nire antzinako ikastolan etxean egongo banintz bezala sentitzen nintzen eta. Banituen lagun mordoa eta irakasleak oso jatorrak ziren, ez oraingoak bezalakoak. Ai, zer inozoa nintzen! Nire gurasoek esan zidatenean beste ikastetxean baino gozoago egongo nintzela, nik sinetsi egin nien. Baina haiek ere ez zekiten zein erratuta zeuden.

Benetan, lehen egunetik amesgaizto bat izan da. Hasteko aitortu behar dut nire gaur egungo ikastola eliteko ikastola dela. Badirudi nire ikaskide gehienak beste mundu batean bizi direla. Nire zorigaitza ez da beste umeek sentitzen dutena. Haiek ez dute klasera joan nahi lanagatik, baina nire kasua ez da hori. Ikastolan ez dut ezer egiten, nire notak jaisten ari dira eta dena nire ikaskideen erruz. Haiek nire bizitza ezinezkoa egiten dute egunero.

2009-09-08

Gaur klaseko lehen eguna izan da eta amak kotxez eraman nau ikastolara. Kotxetik jaitsi naizen momentuan begirada guztiak nire gainean jausi dira, aurpegiaren tximinoak edukiko banitu bezalaxe. Gero klasea bilatzea itzelezko frogaren izan da; gelara ailegatu naizenerako klasea hasita egon da eta, zorua urez blai zegoenez, irrist egin eta lurrera erori naiz, eta denak barrezka hasi dira, baita maisua ere.

Gero gelan aurkeztu naiz eta hasieran ez ziruditen txarrak, baina gero nirekin sartzen eta irainak jaurtitzen hasi dira. Hau jasan ezina da; ez zait batere ondo iruditzen inondik ezagutu gabe nirekin sartzea sudur puntan jartzen zaiolako momolo bati. Ikastola hau ez zait iruditzen esaten duten bezalakoa, hau gogaikarria da.

2009-09-09

Bigarren egunean gauzak ez dira hobeto joan; okerrera jo dute. Ikaskideek aurkariari bezala begiratzen naute. Izan ere, ematen du edozein unetan zer edo zer egingo didatela. Eta, noski, gaurko soinketako klasean aukera paregabea eduki dute. Ni gimnasia egiten nengoen bitartean nire arropa guztia komuneko bidean bota dute.

Nola azaldu etxean? Ikaskideen broma jasateaz gain, amaren errieta jaso behar izan dut.

2009-09-15

Asteburua pasa ondoren, nire antzinako ikastolako lagunekin barrukoa garbitu eta gero hobeto sentitzen naiz. Baina berriro astelehenari aurre egin behar diot.

Espero nuen bezala egundoko eguna izan da. Maisuak arbelera atera nau eta begi guztiak nire kopetan sentitu ditut. Ezin izan dut erantzun zuzen bat ere eman. Denak barrezka, maisua izan ezik, zeinek zero handi bat jarri didan. Ikastolatik ateratzerakoan denak irainduz eta bultzatuz inguratu naute. Negarrez eta alkondara urratuta heldu naiz etxera. Noski, berriro amaren errieta jaso behar: "Desastre hutsa zara. Zer egingo dut zurekin? Bost axola zuri zenbat diru balio duen arropak!"... Ikusten duzunez nire egoera ezin da okerragoa izan. Etsita nago.

2009-10-01

Hamabost egun pasa dira eta ez dut hitz bat ere idatzi nire egunerokoan. Gogaituta nago. Ikastolan besteen txantxa txarrak eta irainak, etxean ama eta aitaren errietak. Baina aitortu behar du arrazoia dutela, nire notak ez baitira batere onak. Inoiz ez dut hainbeste gainditu gabarik ikusi.

2009-11-23

Nire gurasoak kezkatzen hasi dira. Ez dut ikasgai bat ere gainditu. Ez daukat lagunik. Antzinakoekin ez dut atera nahi, eta gertatzen zaidana nire gurasoei kontatu behar diedala esaten didate eta ezin dut jasan. Ikastolan gertatzen zaidanak bost axola dit. Uste dut depresio bat daukadala, edo antzeko gauza bat; berdin dit.

2009-11-25

Gaur izugarria izan da. Arratsaldeko bostetan, zuzendaria niregana etorri da esanez nirekin hitz egin nahi duela. Ni, beldurrak hilda, bere bulegora joan naiz. Atean nire gurasoak zeuden, irribarrea ahoan, agurtzen. Ni ikustean, serio-serio, nire aita hurbildu zait esanez ez daukadala zertan kezkatu eta hemendik aurrera dena ondo egongo dela.

Helduek oso erraz ikusten dute nerabeoi gertatzen zaiguna. Ez dakit ondo zer dakiten, baina nire ustez konponketa bakarra ikastolatik joatea da.

2009-12-18

Egunak pasa diren arren, gauzak ez dira konpontzen. Zuzendariak ikaskide guztiekin hitz egin du, antza. Baina ikastolan nahiko ondo egon arren, orain kalean daude nire zain. Gauzak ez dira konpondu, okertu baizik.

Oporrak heltzeko zorian daude, eta ni oso pozik nago. Nire amonaren etxera joango gara Gabonak pasatzera, hau da, Kanariasetara. Zer ondo egongo naiz! Han bertan lagun paregabeak ditut. Egun batzuk hemen gertatzen zaidana ahaztuta, poz pozik biziko naiz.

2009-12-19

Gaur azken eguna da. Oporrak ondoan daude. Pozik nago, berdin dit zer egin dezaketen nire ikaskideek. Pentsatu dut geroago ateratzea, eta horrela aspertuko dira, etxera joango dira, eta bakean utziko naute.

Erratu egin naiz. Orain dena ilun-ilun dago. Ez dut inor ikusi, baina ez da ondo ikusten. Beldurraren beldurrez, banoa etxerantz. Geltokira heldu baino lehen, nire atzetik zarata entzun dut eta kristoren kolpea eman didate buruan. Han bertan seko utzi naute. Geroago gertatu dena, ezin dut kontatu. Ospitalean egundoko buruko minarekin esnatu naizela baino ez dut gogoan. Baina nire gurasoek kontatu didate harrapatu dituztela eta haien aurka isuna jarri dutela.



2010-01-18

Gaur epaiketa hasi da. Haien defentsak booling-a egin didatela aitortu du, baina damututa daudela. Epaileak esan du oso gazteak direnez, eta legearekin lehen arazoa izan denez isun bat ordaindu beharko dutela. Niri eta gurasoei ez zaigu ondo iruditzen.

Gaua da. Nire gurasoak hitz egiten daude sukaldean. Bat-batean, isildu egin dira eta niregana hurbildu dira. Aitak, serio-serio, nire ondoan jesarri da hemen-dik aurrera dena ondo joango dela esanez. Baina nik ez diot sinetsi. Gero amak besarkatuz nire antzineko ikastolara bueltatuko naizela esan dit.

2010-02-07

Benoa, agur esan behar dizut. Esan behar dizut lagundu nauczula, baina gaur egun ondo nago eta ez daukat arazorik. Bai, badakit behar izanez gero hor egongo zarela.

Agur,

DANI

BAT BI EDO HIRU MUNDU

Carlota Garcia-Escudero Corcuera
Miguel de Unamuno BHI

Irakasleak Mikoleta ipuina idazteko esan zigunean zirriborro asko egin ostean txikia nintzenean nire izekok abesten zidan abesti bat etorri zitzaidan burura. Abesti hark “Bat, Bi eta Hiru puxika” zuen izenburua.

Nik neure buruari sarritan galdetzen diot zenbat mundu dauden. Badakit munduan iritzi asko daudela zenbat mundu dauden zehazterakoan.

Nire ustez, hiru mundu daude: mundu erreala, ametsen mundua eta heriotza.

Mundu erreala zer den ulertzeko ez dugu inolako arazorik bizitzen garen mundua delako.

Aldiz, ametsen mundua zer den ulertzea oso zaila iruditzen zaigu; eta askoz zailagoa da heriotza zer den jakitea.

Ametsen munduari eta heriotzari buruz dudan iritzia erakusteko istorio bat asmatzea bururatu zait.

Patricia 11 urteko neska zen. “Tripaundi” zen bere goitizena. Lodiegi zegoez arazo asko zituen bere ikaskideekin.

Bakarrik sentitzen zen bere ikaskideek iraintzen eta baztertzen zutelako.

Lagunik ez zuenez beti triste zebilen eta gehien gustatzen zitzaiona irakurtzea zen, berarentzat liburuak bere lagunik onenak ziren eta.

Patricia liburu bat irakurtzen zuenean istorioan sartzea lortzen zuen, irudimen handia zuelako.

Patriciaren ustez, idazleak munduko pertsonarik garrantzitsuenetarikoa ziren.

Patricia askotan amets bat zuen. Amets horretan dutxa hartzen zegoen bitartean oso txikia bihurtzen zen eta, azkenean, xaboi burbuila baten barruan sartuta ikusten zen.

Modu honetan, bainuontziko isurbidetik alde egiten zuen eta hiriko hodieta-tik bidaia luze bat egin eta gero liluragarriko mundura heltzen zen.

Mundu miragarri horretan jende guztia Patricia bezalakoa zen eta hantxe zegoenean pozik sentitzen zen. Horregatik, ez zuen amets horretatik esnatu nahi.

Noizbehinka, berriz, oihuka esnatzen zen amesgaiztoak zituela.

Beste amets horietan, korrika hasten zen bere ikaskideengandik ihes egiten saiatzeko; haiek barre egiten zioten; baina Patricia ezin zen mugitu, lurrera itsatsita sentitzen zelako, eta oso urduri esnatzen zen.

Egun batean, bere amari ametsei buruz hitz egiten hasi zitzaion.

–Ama, nola sortzen dira ametsak?

–Ametsak sortzen dira lo hartzen duzun pentsamenduarekin. Horregatik batzuetan gure ametsetan sentitzen duguna islatzen da.

–Ama, ba ni amets polit batean nagoenean gustatuko litzaidake inoiz ez esnatzea.

–Patricia, hori normala da. Lotan geratzen zarenean pentsatzen duzunarekin ametsen mundura heltzen zarelako.



–Ama oraindik ere zalantza bat daukat. Aitona heriotzean pentsatzen lo geratu zelako hil zen?

–Ez, Patricia, aitona hil zen oso gaixorik zegoelako.

–Orduan, apaizak hiletan zergatik esan zuen: "Juan López García jauna joan da bere azken ametsera"?

–Patricia, zuk ez dakizu hiltzeko zorian zaudenean zure bizitzako momentu zoriontsuenak ikusten dituzula arin pasatzen argi distiratsu baten zehar?

–Orduan, zer esan nahi duzu? Hiru mundu daudela?

–Horrelako zerbait.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Sorgina!

*Elai Andraka Gonzalez
Ignacio Ellacuria BHI*

Anna Lemoine zuen izena, Baionan 1585. urtean jaioa. Bost urte zituenean bere aitak, Jean Lemoine merkatariak, Zugarramurdira bizitzera joatea erabaki zuen. Erabaki horrek, berak ez bazekien ere, bere alabari arazo handiak ekarriko zizkion. Annak 25 urte bete zituenean, bere bizitzaren amaiera gertu zegoela sumatu zuen.

1. Salaketa

Basotik korrika egiten zuen bitartean ezin zuen sinetsi ere egin Uxue auzokideak, bere lagun minak, salatu egin zuenik. Bi aste lehenago susmatzen hasia zen, baina ez zuen sinetsi nahi. Hala ere, bere aitak esan zion moduan, badaezpada bizi-gaiz osatutako pakete bat prestatua zuen; seguruenik, ordura arte, hori izan zen bere bizitza salbatu zuena. Dena den, ez zuen uste askoz urrunago helduko zenik. Bere atzean entzuten zuen jazarleek egiten zuten zarata basotik korrika, bera harri-patu nahian.

Bat-batean lurra bere oinen azpian desagertu egin zen. Ez zen konturatu beranduegi izan zen arte; amildegi bat zuen bere aurrean eta handik erortzen ari zen. “Beno” pentsatu zuen “gutxienez torturarik gabeko heriotza izango dut”. Baina, zorigaitzez, ez zen hala izan: amildegitik erori zen, bai, eta lurraren kontra kolpea sentitu zuen. Amildegia hainbat hezur apurtzeko moduko altuera zuen, baina ez hiltzeko bestekoa, Gainera, seguruenik jazarleek horrelako erorialdia jasan eta gero pertsona bat hil egingo zela pentsatuko zuten, eta horrek sorgina zelako susmoa areagotuko zuen. Ihesaldia galdua zuen. Ez zen torturetatik salbatuko eta erorialdiaren erruz erdi hilda jasan beharko zuen hau.

2. Atxiloketa

Ez zekien non zegoen. Konorterik gabe egin zuen harainoko bidea eta ziega kirasdun batean zegoen giltzapetuta.

Egunero ogi-koskorra eta pitxer bete ur ematen zizkieten. Batzuetan sendagile bat joaten zen nola zegoen ikustera. Zaindarien ezin zuten aitortpena lortu baino lehen gatibua hiltzen utzi.

3. Itaunketa

Sendatu zenean galdeketak hasi ziren. Ziegatik atera zuten eta beste gela batera eraman. Gelan mahai bat eta aulki bat besterik ez zeuden, eta han itxaroten utzi zuten. Gizon bat sartu zen gelan. Oso lodia zen eta erdi burusoila, arropa garesti eta kalitate onekoak zeramatzan, eta beso azpian fardel bat zuela ikusi zuen Annak. Ez zekien zer zen hura, baina erraz irudikatu ahal zuen egiten zuen metal soinuari esker. Hotzikara sentitu zuen.

–Beno, polita –hasi zen gizona esaten. Hitz egitean bere bibotea astintzen zuen. –Galdeketak nola doazen azalduko dizut. Hasteko, onean egingo dugu galdeketa. Sorgina zarela aitortzen baduzu ez dugu bigarren galdeketa pasatzeko beharrik izango. Ez baduzu aitortzen, bigarren galdeketaekin hasiko gara. Bigarren galdeketa erabilitako tortura tresnak eta makinak erakutsiko dizkizugu eta haien funtzioa azalduko dizugu. Hala ere, aitortu gabe jarraitzen baduzu, hirugarren galdeketa pasatuko gara. Tortura tresnak nola erabiltzen diren zeure haragian erakutsiko dizugu. Ulertu al duzu? –Annak buruarekin baietz esan zuen, zurbil jartzen zen bitartean. –Sorgina al zara?

–Ez. –Bazekien baietz esanez tortura saihestuko zuela, baina jakin ere bazekien hiru aldiz torturatzean aitortpenik ez bazuten lortzen legez libre utzi beharko zutela. Momentu horretan bere borondate guztiaz bizirik jarraitzen saiatuko zela erabaki zuen.

–Ez zara inoiz akelarreraren batera joan?

–Ez.

–Ez duzu inoiz Satan-ekin zerikusirik duten erriturik egin?

–Ez.

–Beste sorginen bat ezagutzen duzu?

–Ez.

Gizonak behin eta berriz errepikatu zizkion galdera berberak ordu betez. Ordu hori bukatu zenean, bigarren galdeketa hasi zen. Gizonak metalezko traste lazgarri bat erakutsi ondoren, haren funtzioak eta erabiltzeko modua azaldu zizkion xehetasun guztiekin. Azaltzen amaitu zuenean, lehengo galdera berberak egin zizkion eta Annak guztietan ezetz erantzun zion, hotzikarak bere bizkarrean nabaritzen zituen bitartean. Gizona hurrengo trastearekin hasi zen eta galderak berriz errepikatu zizkion. Annak erantzun bera eman zion oraingoan ere. Fardeleko trasteekin bukatu zuenean, Anna tortura gelara eramán zuten eta hango makina guztiak deskribatu eta azaldu zizkion gizonak, galderak errepikatzen zizkion bitartean. Annak ezetz erantzuten jarraitzen zuen, baina gero eta gehiago kostatzen zitzaion egia esatea. Gizonak irribarre beldurgarria egin zuen eta hirugarren galdeketa prestatzen zuten bitartean, bere ziegán itxaron beharko zuela esan zion.

Ziegán zegoen tartean, pentsatzeko denbora izan zuen. Askotan pentsatu zuen momentu horretaz han zegoenetik, baina orain inoiz baino seguruago zegoen: ezin zuen gezurra aitortu, ezin zuen sorgina zela esan, hirugarren tortura amaitu arte jarraitu behar zuen egia esaten, bestela, bereak egin zuen...

Hirugarren tortura saioaren amaiera gertu zegoen. Pentsamendu horrek ematen zion eusteko behar zuen kementa. Bigarren torturan aitorpen faltsua egiteko zorian egon zen, baina azken unean konturatu zen eta hori egin beharrean zigorkariari listua bota zion. Gutxi falta zen tortura amaitzeko, gutxi falta zitzaion libre izateko, lortu zuen... Beste oihu bat bota zuen.

4. Aitorpena

Bere oihuen artean, lehengo galdeketetako gizonaren ahotsa entzun zuen:

–Ez du oraindik aitortu?

–Ez, oraindik ez –erantzun zion zigorkariak. Bibotedun gizona Annari begira geratu zitzaion, pentsakor.

–Zergatik ez duzu aitortzen, neskato? –galdetu zuen.

–Sorgina ez naizelako! –oihukatu zuen Annak beste oihuen artean.

–Ondo entzun al dut? –gizonaren aurpegian irribarre maltzur bat agertu zen.

–Sorgina dela aitortu du, ezta? –galdetu zion zigorkariari. Zigorkariak harridura eta ez jakinaren arteko aurpegia jarri zuen, baina orduan ulertu zuen eta irribarre egin zuen buruarekin baietz esaten zuen bitartean.

–Egia da... Aitortu egin du, azkenean...

Annak ezin zuen sinetsi ere egin. Hiru torturaldiak jasan ondoren, ez zuen ezertarako balio izan. Jakin izan balu, lehenengo galdeketa esango zuen sorgina zela. Sufrimendu guzti hori su artean hiltzeko... Indar guztia bat-batean joan zitzaion, ez zuen ezta kexatzeko indarrik ere. Tortura guztian zehar ez zuen malko bat ere isuri, ez zuen nahi zigorkariak negar egiten ikus zezan, baina gordeta zituen

malko guztiak batera atera ziren bere begietara eta Annak ez zuen ezer egin hori saihesteko. Konortea galdu zuen.

5. Kondena

Epaimahaikoak zibilak ziren. Haietako batzuk bistaz ezagutzen zituen, Zugarramurdi ingurukoak baitziren. Espero zuen horrek bere onuran jokatzeari, baina ez zitzaion itxaropen handirik geratzen. Judizioa hasi zen. Annak ez zion kasu handirik egiten, sabaiari begira zegoen, behinolako sasoi onetan pentsatzen. Bazekien ez zuela judizioa irabazteko aukerarik izango, sorginek babes juridikorako eskubiderik ez zeukatela entzun baitzuen noizbait. Horrexegatik, harritu zen epaimahaiko batek galdetu zionean bere babesean ea zer bait esan nahi zuen. Annak, harrituta zegoen arren, ez zuen aukera pasatzen utzi:

–Ez naiz sorgina eta inoiz ez dut horrelakorik aitortu. Gezurretan ari dira.

–Benetan espero duzu horrelako argudio sinesgaitza baliotzat hartzea? –esan zuen beste epaimahaikide batek. Annak bere itxaropena nola desagertzen zen sentitu zuen.

Epaimahaiak errudun epaitu zuen eta su artean hiltzera zigortu zuen. Hala ere, bazegoen bat ez zetorren epaimahaikide bat, lehen ustekabeko galdera egin zuena. Penaz begiratzen zion Annari gelatik nola zeramaten ikustean.

6. Zigorra

Bere heriotzaren eguna heldua zen. Orain bai, orain ez zuen inolako ihesbiderik. Ezin zuen beste ezertan pentsatu, beraz, ez zuen espero jaso zuen bisita. Atxilotuta zeraman denbora guztian inor ez zitzaion bisitan joan, “sorginek” ez baitzuten eskubide hori. Etorri zena epaimahaiko tipoa zen, bera hiltzea nahi ez zuena.

–Ez nuen zuretzako etorkizun hau nahi –xuxurlatu zuen. Annak ez zuen ezer esan. –Zu salbatzen saiatu nintzen... Seguruenik ez zara gogoratuko, baina txikitari Saran jolastu ohi genuen. Ez dut uste sorgina zarenik, atzoko tipo haiek gezurretan zeudela pentsatzen dut. Benetan, sentitzen dut zuek ezer egin ezin izana. Besteei eskatu diet gutxienez heriotza hobea ematea, sufrimendurik gabekoa, eta gero zure gorpua sutan erretzea, baina ezetz esan dute. Oso arriskutsua omen zara, ez duzula horrelakorik merezi...

–Mila esker... –murmurikatu zuen Annak. –Zutaz gogoratzen naiz, Jokin, nahiago izango nukeen beste egoera batean elkar ikusi izan bagenu, baina zure hitzek pozten naute, benetan, mila esker... –Annak konortea galdu zuen.

Esnatu egin zenean plataforma baten gainean zegoen, zutoin bati loturik. Plataforma jendez inguratuta zegoen. Haserre handiz begiratzen zioten eta hainbat motatako barazkiak botatzen hasi ziren, guztiek gauza bera oihukatuz:

–Sorgina! Sorgina! Ez duzu bizitza merezi, Satanen alaba! Sorgina!

Annak malkoak sentitu zituen masailetatik behera erortzen. Legenda batzuen arabera sorginek ezin zuten negarrik egin, baina hori haiei ez zitzaien batere inporta.

Anna Lemoine
1610



Sua piztu zuten plataforman eta keak Anna inguratu zuen. Sua egurretik gora igo zen eta bere oinetaraino heldu zen. Anna oihukatzen hasi zen. Uste zuen torturarekin ahal zuen oinaze guztia jasan zuela, baina ez zekien sutan egotea zer zen. Orain bazekien eta nahiago zuen jakin gabe jarraitzea.

–Herio, mesedez, etor zaitez nire bila, Herio, mesedez, etor zaitez nire bila, Herio, mesedez, etor zaitez nire bila... –behin eta berriro errepikatzen zuen gauza berbera oihuen artean.

Bat-batean, kearen artean kapa belzdun pertsonaia bat ikusi zuen, ezin zuen bere aurpegia ikusi, txanoaren erruz, baina hezurrez osatutako esku zuri bat luzatu zion. Annak dudarik gabe hartu zuen.

Horrela, Herioren eskutik hartuta, zerurantz abiatu zen Anna, atzean bere gorpua utzita.

ESTRALURTAR BATEN EGUNEROKOA

*Dario de Miguel Peñas
Berrio-Otxoa HLBHIP*

10857ko otsailaren 30a

Kaixo, eguneroko maitea! Gaur Saturnoren bigarren eraztunaren espazio geltokian egon naiz nire lankideekin hitz egiten Lurra izeneko planetari buruz, eta bertako zibilizazioari buruz. Lurreko zibilizazioa gure aldean oso atzeratuta dagoela uste dugu, baina oraindik ez dugu konprobatu egia den ala ez, zeren eta Lurra aztertzeko bidali ditugun kideak ez baitira oraindik bueltatu, ez dakigu zergatik; agian, Lurrean hemen baino hobeto bizi dira; agian, lurrekoek gure kideak preso hartu dituzte, edo bidaian zehar hil egin dituzte arrazoi desberdinengatik.

Baina gaur, lankideekin hitz egiten nuen bitartean, nagusiak deitu egin dit:

–Ferber, etorri nire bulegora oraintxe bertan!

Nik ez nekien zergatik, baina oso larrituta nengoen zeren eta nagusiaren tonua ez zen zorionak emateko modukoa.

Nagusiaren bulegoan sartu naizenean, oso pozik zegoela ikusi dut, eskua eman dit eta gero hanka, jesarri naiz eta zera esan dit:

–Zorionak, Ferber, Artizarrera joateko aukeratua izan zara. Espedizio bat egingo da bertako zibilizazioa aztertzeko.

–Zergatik ni? –galdetu diot.

–Zu nire konfiantzazko pertsona zarelako eta onartu duen bakarra.

–Baina nik ez dut oraindik ezer onartu! –erantzun diot haserretuta.

–Ba, sentitzen dut, baina beste guztiek ezetz esan didate eta azkena zu izan zara eta ezin didazu ezetz esan; orduan, zu Anizetorekin joango zara eta kito!

Nagusia ren bulegotik atera eta etxera bueltatu naiz maletak prestatzera zeren eta bihar joango naiz, baina Anizetorekin? Hau bai mutil ergela, gure geltoki osoko tontoena, baina ez dago atzera bueltatzeko aukerarik.

10857ko otsailaren 31

Gaur da eguna, Artizarrera joateko eguna. Espazio geltokira heltzean, han zegoen nagusia niri itxaroten. Eskua eta gero hanka eman dit. Espazio-ontzira igo naiz eta bertan Anizeto zegoen niri itxaroten aireratzeko.

Han zegoen bai, poz-pozik bere ametsa izango balitz bezala. Bere alboan jesarri naiz, segurtasun-gerrikoak jarri ditugu, atea eta leihoak itxi, motorra martxan jarri eta Saturno utzi dugu.

10857ko martxoaren 7a

Badaramagu aste bete espazio-ontzian espaziotik bidaiatzen, kalkuluak egin da asteroide-gerrikoa eta Marte pasatu ondoren orain Lurraren alboan gaude. Baina momentu batean Anizeto, oihukatzen hasi da:

–Problema bat daukagu, gasolina amaitzen ari zaigu eta ez daukagu Artizarrera heltzeko beste.

–Orduan, zer egingo dugu? Ez genuen leporaino bete ala zer? –galdetu diot.

–Bai, baina egarri nintzen eta urik ez nuen aurkitzen eta gasolina pixka bat edan dut –erantzun dit.

Espazio-ontzia behera joaten hasi da abiadura handiz, eta azkenean Lurrean agertu gara, area eta urez betetako leku batean. Bertan zeuden gauzak edo jendea dela suposatzen dut, Anizetori eta niri begiratzen hasi dira, estralurtarrak bagina bezala.

–Martekoak! Martekoak! –hasi da jendea oihukatzen.

–Ez, Saturniarrak gara, ez Martekoak! –erantzun diet haserretuta.

Bai, haserretzen naiz, Lurtarrek, Martekoak eta Saturniarrak desberdintzen ez dakitenean, oso desberdinak baikara. Baina jendea beti begiratzen ez geratzeko eta guri munstroak bagina bezala ez begiratzeko, lurtarren itxura hartu dugu, nik Cristiano Rondorena eta Anizetok hasieran Shrek-rena, baina gero ikustean bera ere munstro bat zela, pertsona normal batena hartu du.

Orain galdera bat daukagu Lurraren zein partetan gauden. Harrizko hormaren beste parte batean sartu garenean lurta bat zegoen bertan.

–Kaixo, mutilok! –esan digu tonu onean– Zer nahi duzue?

–Ba, guk jakin nahi dugu ea non gauden –galdetu diogu.

–Ba, orain denda batean! –erantzun digu–. Ala zuek jakin nahi duzue zein hiri eta herrialde den? –galdetu digu gero.

–Bai –erantzun diot.

–Ba, Bilbon gaude hiri handia da, eta herrialdea Espainia da.

–Eskerrik asko! –esan diogu Anizetok eta biok lurtarrari.

Hormatik atera gara, baina ez dakigu non gauden, bueno bai “Bilbon”, gaua sartzen ari da eta “Bilbo” gero eta jende gutxiagorekin geratzen ari da eta guk ez dugu inora joateko lekurik. Anizeto eta biok metalezko obalo handi baten albotik pasatu gara Lurtarrez beterik dago eta obaloaren barrualdetik oihiak entzuten dira. Lurtar baten albotik pasatu naizenean, hitz egiten hasi zait, baina hizkuntza arraroan hitz egiten zuen eta nik ez diot ulertu. Gero beste lurta baten albotik pasatzean hitz egiten hasi zait, eta honi bai ulertu diot bere hizkuntzan.

–Cristiano Ronaldo! Baina ez duzu jokatu ala zer? –galdetu dit batek.

–Hoberena zara! Gaur 0-2 irabaziko dugu! –esan dit beste batek.

Gero lurta talde bat hurbildu zait, denak berdin jantzita eta aurreko lurtarrendandik urrundu gaituzte. Ondoren metalezko obaloaren barruan sartu gaituzte ni eta Anizeto.

Obaloaren barruan 17 pertsona zeuden gela batean sartu naute, denak ni bezala jantzita. Ondoren eskailera batzuk igo ditugu lurzoruan milioika zurtoin, berde mehe eta bigun zeuden leku zabal batera joateko. Ni bezala jantzita dauden lurtarrak korrika egiten hasi direnean, kamiseta zuri-gorriak daramatzaten 18 lurta ere etorri dira eta korrika egiten hasi dira lurzoru berde honetan. Gero gerra bezalako joko bat egin dugu ni bezala jantzita gaudenok, kamiseta zuri-gorria daukatenen kontra, baina oso “gerra” arraroa da, zeren eta irabazteko larruz egindako esfera, aurkako taldearen errektanguluan sartu behar baita, baina ez da batere erraza, errektangulu bakoitzak guardian bat du eta.

Joko horren amaieran 200.000 € eman dizkidate, eta horrekin horma bat eta lau gurpileko makina bat (hemen erabiltzen den ibilgailu tipikoa) erosi ditut. Gure espazio-ontzira-ko gasolarik ez daukatenez, nik diru asko irabazten dudanez eta hemen oso ondo bizi denez, lehen etorri ziren beste lankideak bezala geu ere, Anizeto eta biok, hemen geratuko gara bizitzera.



Beti zure ondoan, laztana

Ane Martin Mendez
Gabriel Aresti BHI

“Gaur, irailak 18, 2 kilo gehiago erre ditut. 5 gehiago eta nire pisu idealean egongo naiz.” Koaderno itxi bezain laster ispilura joan naiz. 2 kilo gutxiago, ez dira ikusten. “Gaur kirol tarte bikoiztuko dut” pentsatuz sukaldara joan naiz.

–Joana, gaur ere gosaldut gabe? –ama egunero bezala.

–Ez da egia, esnea hartu dut. Agur, ama!

Ezer gehiago esan baino lehen autobusa hartzera abiatu naiz. Lorea, egunero bezala, auzoko azken etxeko horman itxaroten dago. Eta beti bezala, nire argaltasuna ikustean aurpegia aldatu du. Badakit oso potolo nagoela, baina horregatik aurpegi hori jartzea! Haserretu egin naiz.

–Joana...

–Utz nazazu bakean, Lorea; eta goazen ba.

Eta horrela bide osoa, bere begiak nire sorbaldan sentitzen ditut eta horrek okerrago jarrarazten nau. Baina hori guztia pikutara joan da Carlos etorri denean. Beti bezala, institutuko atean, Carlosek irribarre bat lapurtzen dit. Carlos nire lagun mina da. Eta haserre jartzen naizen bakoitzean bera nire ondoan dago. Azken egunotan potolo nagoela esaten ez didan bakarra da, eta hori eskertzekoa da. Institutuko zuzendariak ere esan dit; gainera, psikologoarengana joatea komeni zaidala esanez! Zoratuta daude guztiak.

Nire gauzetan pentsatzen, jateko ordua heldu da, beste froga zail bat. Lorea eta Carlosekin eseri naiz, sagar bat bi eskuen artean. Lorearen begirada sentitu dut berriz eta haserre bizian sagarra jaten hasi naiz.

–Gehiago jatea komeni zaizu.

–Zer? Zuk ni potoloago jartzea nahi duzu, ala?!

–Lore, mesedez, utzi Joana bakean. Horrela ez duzu ezer lortuko harengandik.

Ordu osoa eman dugu isilean, umore txarrez nengoen eta Carlos berehala ohartu da horretaz. Sagarra amaitu eta komunera noala esanez jantokitik atera naiz.

...

“Gaur, abenduak 19, 2 kilo gehiago erre ditut. Primeran sentitzen naiz, baina oraindik potolo nago, eta nire ustez gero eta gehiago. “Koaderno itxi eta eguneroko betebeharetara itzuli naiz. Oso gauza arraroa izan da Lorea betiko horman ez ikustea. Buruari eraginez institutura heldu naiz. Carlos atean zegoen, burumakur.


–Zer gertatzen da, Carlos?

–Loreak ez dela berriro gurekin etorriko esan didala...

Istorio osoa entzun eta egoera berria gure bizitzan barneratu beharrean geundela klasera abiatu gara. Han Lorea zegoen guri aurpegia eman gabe, zelako lotsagabea! Gu alde batera utzi, ni potolo nagoelako. Horrek bai kopeta latza!

“Gaur, martxoak 6, hobeto nago. Carlos egunero nire ondoan dago, zein polita nagoen esanez.” Bai, hilabete bat daramat ospitalean. Anorexia daukat eta nire amagatik eta Carlosengatik nago bizirik oraindik. Nola? Egun batean, biok nekatuta, medikuarengana eraman ninduten, eta horri esker hobera egiten ari naiz. Non da Lorea? Beste lagun batzuk dauka. Ez nago haserre, ondo ulertzen dut eta. Nire lagunetatik Carlos da nire ondolan gelditzen den bakarra eta ulertu ezinean nago oraindik. Gauza batez ziur nago, ez dut inoiz ahaztuko egun hartan esan zidana, bizitzarekin lotzen bainau:

–”Berdin zait ze arazo daukazun. Beti zure ondoan egongo naiz, laztana.”



Amaiera

MAITASUNAREN BIDE BIHURRIAK

*Edurne Alonso Zuazo
Gabriel Aresti BHI*

Asteburu bikaina izango zela zirudien. Ama lagun batzuekin bainuetxe batera zihoan eta aitari, berriz, kongresu bat azaldu zitzaion. Horrek esan nahi zuen etxea niretzat bakarrik izango nuela! Baina, hor hartu nuen lehen zaplaztekoa. Aitak ez ninduen etxean bakarrik utzi nahi, nahiz eta 16 urte eduki, eta norbaiten etxean geratzeko proposatu zidan, proposatu baino hobeto agindu. Orduan, nire aita oso demokratikoa, nire esku utzi zuen nire lagunaren etxea aukeratzea. Dena prestatu nuen, nire gurasoei Lorea nire lagun minaren etxean geratuko nintzela esan nien arren nire benetako plana Alexekin gelditzea zen. Berandu heldu ahal izango nintzen gauero eta gainera etxea biontzat izango genuen. Bere amak ez zion kasu handirik egingo, haren gurasoak bananduta zeuden eta azken aldian ez zuen denbora handirik ematen etxean.

Ostirala zen eta nire gurasoak egunsentian joan ziren eta klaseak amaitu ondoren Alex eta biok nire etxera abiatu ginen, film bat ikusteko asmoz, baina zer edo zer gehiago egiteko prest ere banengoen, Alex ere bai.

Igogailuan sartu ginen eta 4. solairuan gelditu ostean atea zabaldu nuen. Ateak ez zuen giltza botata, gauza arraroa, nik bi bueltaz giltzatu nuela zin egingo


nuen baina ezer esan baino lehen, Alexek musu ttipi bat masailean itsatsiz etxe barrura bultzatu ninduen.

Momentu horretan gertatu zena egoera nahasia izan zen:

–Ama-Alexek.

–Aita-Nik.

Hantxe zeuden nire aita eta bere ama sofa gainean erdi biluzik. Guztiok izoztuta gelditu ginen bakoitza bere bihotzean zer esan ez genekiela eta azaltzeko aukerarik eman gabe etxetik irten nintzen negarrari emateko zorian, eta Alex atzetik.



Orain, zer? Amari kontatuko nion? Edo ezer gertatuko ez balitz moduan jokatuko nuen? Hai!... orain guztia ulertzen nuen, kongresu haiek, etxera berandu heltzea... Ez nekien zer egin, Alexi begiratu nion, ez zuen ahoa ireki ibilaldi osoan. Ezin nuen gehiago jasan eta zer pentsatzen zuen esateko eskatu nion. Bere erantzunak hitzik gabe utzi ninduen.

–Nire ama denboraldi honetan inoiz baino alaiago egon da eta nire iritzian, zure aitarekin dagoelako izan da. Badakit txarto pasatzen zaudela baina...

Ez nuen ezer gehiago entzun nahi, ez nuen bere errukia behar. Dirudienez ez zegoen amaiera zoriontsu bat, amaiera zoritxarrik gabe. Zelako mundua gurea! Hantxe eman genuen arratsalde osoa, isilik, parkean eserita, hain oroitzapen goxoak nituen han! Bat-batean mugikorra deika zebilela ohartu nintzen. 50 dei galduak nituen aitarenak. Alexek orduan etxera joaten lagunduko zidala esanez bankutik altxatu ninduen.

Etxera heldu nintzenean, aita zain zegoen sofan eserita telebista beltz baten aurrean. Atea zeharkatzean bere ondoan eseri nintzen, hitz egin beharra geneukan, aita begiratu zidan, nondik hasi ez zekien eta.

–Maitea, nola azaldu dezaket egin dudana... ez dut intentzio txarrarekin egin baina... nik ere zoriontsua izateko eskubidea dut... zure ama... eta neska hori, hain jatorra eta erakargarria da...




Ez nuen ezer ere ulertu eta aita negar egiteko zorian zegoela zirudien. Inoiz ez nuen ikusi aita egoera hartan.

–Beitu, ez nuen nahi honetaz zu ohartzerik baina egia jakiteko eskubide osoa daukazula deritzot. Zure ama oso arraro zebilen, ohartu nintzenean detektibe pribatu bati eskatu nion jarrai zezala eta dirudienez zure gorputz heziketako irakaslearekin ezkutuan ikusten zen. Harekin hitz egitera joan nintzenean Alexen amarekin topatu nintzen, oso txarto zegoela nabaritu nuen eta berarekin kafe bat hartzera atera nintzen bakardadearen zuloa bete nahian. Hor hasi zen guztia orain dela 5 hilabete.

Butteko hilketak

Laura Lozano Vazquez
Berrio-Otxoa HLBHIP

Kontatuko dizuedan istorioa benetan gartatu zen. 1912an hain zuzen ere, Butte izeneko herrialde batean, Alaskan.



Herritar batzuek esaten dute hiltzailea kartzelan dagoela, beste batzuek, benetakoa hiltzailea kalean dagoela. Baina gauza bat argi dago: 1912ko maiatzaren 13an, ostiralean, herrialde horretako bi neska desagertu egin ziren, Kristen eta Ashley, eta hiru egun geroago hilda agertu ziren herrialdeko lakuan. Herrialde honetako klima hotza da eta urteko 254 egunetan elurra egiten du, horrexegatik poliziari zaila egin zitzaion probak aurkitzea lakua izoztuta zegoelako.

Kasu hau 1912an gertatu zen eta 1922ra arte ez zen argitu.

1919an poliziara dei anonimo bat ailegatu zen, ez zekiten nor izan zen deia egin zuena, baina, bai esan zituen bi izen eta bi izen horiek hauexek ziren:

Michael Doyle eta Robert York edo bere lagunek deitzen zioten bezala “Bobby”. Dei honetako pertsonak esaten zuen Michael eta Robert bi nesken hiltzaileak zirela. Deitu zuen pertsonari deklarazio bat egiteko eskatu zion poliziak eta deklarazioa grabatuta egongo zela proba bat bezala, eta pertsona honek baietz esan zuen.

Hauxe kontatu zuen: Bera Butteko herritarra zen eta maiatzaren 13an basora joan zen egur bila bere zaldiaarekin. Zaldiaren ukuilua lakuaren ondoan zuen eta zaldia uztean mutilen eta nesken ahotsak entzun zituen.

Ukuiluko leihotik burua ateratzera zihoan zer pasatzen zen ikusteko, baina leihotik begiratu baino lehen nesken oihuak entzun zituen eta geroago tiro batzuk. Ukuiluan ezkutatu zen eta bi ordu pasatu eta gero irtetean bi nesken gorpuak ikusi zituen izoztuta hotzarengatik. Berehala deitu zion poliziari eta kriminologia poliziak agertu ziren, baina ezin izan zituzten probak aurkitu izotzak ezabatu zituelako. Izen hauek eman zituen aurpegia ikusi zielako eta herrialdeko tabernan haien deskribapena ematean esan zioten bi mutilok herrialdeko hotelean ostatu hartu zutela. Hotelera joan zen eta han berriro eman zuen haien deskribapena eta hoteleko gerentea bere laguna zenez haien izenak eman zizkion, Robert eta Michael.

–Robertek, estatubatuarrak, 19 urte zituen hilketa gertatu zenean; Kalifornian bizi zen, Los Angelesen, hain zuzen ere; altua zen, 1,89 metrokoa, begi berdeak, ile marroia eta aurpegiaren ezkerraldean begiaren azpian orbain bat zuen.

–Michaelek, Kanadakoak, 20 urte zituen hilketa gertatu zenean; hau ere Kalifornian bizi zen, Los Angelesen; 1,86 metroko altuera zuen, begi marroi argiak, ile marroia eta bizarra zeraman hilketak gertatzean.

Poliziak informazio hau guztia hartu zuen eta aditu batengana eraman zuen, jakiteko beraien izaera nolakoa izango zen 10 urte lehenago. Adituak erretratu robota egin zuen; haien izaera eta adina jakinda erraza izan zen.

Poliziak erretratuak banatu zituen lurralde osotik: Kanadan, Estatu Batuetan, eta Alaskan.

1919an Kanadako dendari batek ikusi zituen Vancouverreko bere dendan erosten, baina ez zen konturatu etxera iritsi arte eta konturatzean berehala deitu zion poliziari.

1920an Seattlelen, Estatu Batuetako jatetxe batean atxilotu zituzten jaten ari ziren bitartean. Berehala deportatu zituzten Alaskara susmagarriak zirelako hilketa batean.

Poliziek zeukaten proba bakarra grabatutako zinta zen eta hori proba zirkunstantziala zen.

Baina nesken gorputzetan ADN proba bat aurkitu zuten eta proba hau Roberten odola zen eta honek zehazten zuen berak egun horretan hilketan parte hartu zuela. Michaelen kontra ez zuten ezer, orduan Roberti esan zioten bere kontrako probak zituztela eta beraiek bazekitela bera bakarrik ez zela izan, eta egia esaten ez bazien zigorra gogorragoa izango zela eta hiltzera kondenatuko zutela.

Baina Robertek ez zuen ezer esan eta epaiketan errudun epaitu zuten eta hiltzera kondenatu.

Robert ezagutzen zuen jendeak esaten zuen Robertek ez zuela inor hil, oso pertsona ona zelako eta benetako hiltzailea Michael zela.

Baina, nori sinetsi behar diogu?

Bakarrik gauza bat dago argi, lau pertsonak zekitela egun hartan lakuan zer pasatu zen, eta lau pertsona horietatik hiru hilda daude eta besteak ez du inoiz ahoa irekiko.

TONTOEN ISTORIA

Aitziber Ureta Valle
Zurbaran BHI

Bazen behin urruneko herri txiki batean neska-lagunik aurkitzen ez zuen mutil ergela.

Egun batean neska gazte eta polit bat heldu zen bere etxera berarekin ezkontzeko asmoz. Mutilaren gurasoak neskarekin hitz egiten zeuden bitartean, mutila iturrira joan zen ur bila.

Mutila ez zen itzultzen, beraz, bere amak haren bila joatea erabaki zuen, neska bere senarrarekin geratu zen bitartean.

Ama iturrira heldu zenean, bere semea lurrian eserita eta oso kezkatuta aurkitu zuen. Ia zer gertatzen zitzaion galdetu zion eta mutilak zera erantzun zion:

–Zera, ama, etorri den neskarekin ezkontzen banaiz, seme-alaba asko izango ditugu. Baina arazoa ez da hori... seme-alabei jarriko dizkiedan izenak baino. Egunegian agertzen diren izen guztiak hartuta daude!!

–Arrazoa daukazu –esan zion amak– zurekin eseriko naiz zenbait izen pentsatzeko.

Mutila eta ama iturri ondoan pentsatzen zeuden bitartean, aita eta emaztegaia kezkatuta zeuden etxean. Aitak ere haien bila joango zela esan zion neskari.

Aita iturrira heldu zen eta emaztea eta semea lurrean ikusi zituenean, zerbait gertatu zitzaiera pentsatu zuen. Semeak horrela azaldu zion:

–Zera, aita, etorri den neskarekin ezkontzen banaiz, seme-alaba asko izango ditugu, baina arazoa ez da hori... seme-alabei jarriko dizkiedan izenak baino, egutegian agertzen diren izen guztiak hartuta baitaude.

–Hara! Egia da! –esan zien aitak– zuekin jesarriko naiz izen batzuk pentsatzeko.

Bitartean emaztegaia kezkatuta eta bakarrik zegoen etxean. Azkenean pazientzia galduta haien bila joan zen.

Familiarengana heldu zenean ia zer gertatzen zitzaien galdetu zien:

–Bai, maitea. –erantzun zion mutilak– Zera, zurekin ezkontzen banaiz seme-alaba asko izango ditugu, baina arazoa ez da hori... seme-alabei jarriko dizkiegun izenak baino, egutegian agertzen diren izen guztiak hartuta daude!

–Ai, ama!!! Ezagutzen ditudan pertsonarik tontoenak zarete zuek hirurok... –esan zien neskak– zuek baino tontoagoak diren beste hiru pertsona aurkitzen ditudanean, zurekin ezkontzera itzuliko naiz.

Eta neskak alde egin zuen.

Baso bat zeharkatzean gizon bat ikusi zuen urrunean eta harengana hurbildu zen.

–Egun on, zertan zabilta? –galdetu zion neskak.

–Zera... intxaurrak batzen ari naiz orgatxo honetan etxera eramateko.

Neskari oso ekintza arrunta iruditu zitzaion, baina gehiago hurbildu zenean, gizona intxaurrak sardexka batekin biltzen ari zela ikusi zuen eta zera esan zion:

–Barkatu, gizona, baina ez da errazagoa intxaurrak eskuekin hartzea?

–Arrazoa daukazu! Eskerrik asko neskatzu –esan zion gizonak.

Neskak handik alde egin zuen pentsatzen zuen bitartean:

–Hara, hara, lehenengo tontoa topatu dut...

Handik hurbil neskak beste gizon bat aurkitu zuen, baina harek bere txerria arte batera igo nahi zuen. Neskak hori ikustean, zera esan zion:

–Aizu, gizona! Hobe zenuke txerria behean utziko bazenu eta ezkurak lurre-ra botako bazenitu animaliak jan ditzan.

–Egia da! Eskerrik asko neska!

Lehen bezala neskak handik alde egin zuen pentsatzen zuen bitartean:

–Hara, hara, bigarren tontoa...!

Neska basotik irten zen eta hurbil zegoen herri batera zihoanean gizon bat ikusi zuen praka batzuen alboan salto egiten. Prakak bi zuhaitzetatik eskegita zeuden soka baten bidez eta gizona saltoka zebilen praktetan sartzeko. Neskak hori ikustean gizonarengana joan zen eta hauxe esan zion:


–Zertan zabilta, gizona?

–Praka hauek jantzi nahi ditut, baina oso lan nekeza da –esan zion gizonak.

–Hobe zenuke prakak eskuekin jantziko bazenitu...

–Hara, hara, neska, oso azkarra zara benetan! Mila esker.

Neska une horretan geldirik geratu zen eta bere buruari esan zion:



–Kaguen txos! A ze nolako zortea daukadan...! Honaino etorri eta orain senargaiarengana itzuli behar...!

...

Horrela amaitu zen “Tontoen istorioa”:

Neskak bere hitza bete behar zuenez senargaiarengana itzuli zen eta... seme asko izan zituzten eta izenak bilatzen denbora luze, luze, luzea eman behar izan zuten.

Herriko kondaira bat

Garazi Laka López
Artxandape Ikastola HLBHIP

Denbora luzea igaro genuen larunbateko gaupasa prestatzen. Taldeko guztiok, irrika handiz itxaron genuen eguna. Hainbat hilabete egon ginen gau horretaz hitz egiten, zer egingo genuen pentsatzen, eta azkenean mendira joatea erabaki genuen.

Gu bizi ginen herriaren ondoan menditxo bat zegoen eta bertan, txabola abandonatu bat. Han igaroko genuen gaua.

Lore deitutako neska bati txangora joateko baimena ukatu zioten eta herrian gelditu behar izan zen. Ez zegoen eskubiderik!, gainera, bera izan zen ia gehiena antolatu zuena. Egia esan, bere familia nahiko arraroa zela esan behar da: amamak Eguzki izena zuen, eta sorgina zela esaten zuten; ama ere, Nahia izenekoa, nahiko arraroa zen, herriko jendearekin ez zuen harremanik eta. Inork ez zekien nor zen Nahiaren aita, etxe horretan neskak bakarrik bizi baitziren.

Arratsaldea aurrera joan ahala mendira joateko gauzak prestatzen hasi ginen. Azkenean, mendian gora abiatu ginen pixkanaka-pixkanaka, basoan barrena sartu eta zerua iluntzen hasi zen. Paisaia paregabea zen.

Gaueko hamabietan, gutxi gorabehera, beldurrezko istorioak kontatzen hasi ginen. Nire taldeko mutil baten aita artzaina zen, herriari buruzko kondaira asko zekizkien eta kontatzen hasi zen. Lehenengo istorio biek ez zuten beldur handia

ematen, baina, bat-batean, gu geunden txabolari buruzko kondaira edo egiazko istorio bat kontatzen hasi zen, hona hemen esan zuena:

“Duela berrogeita hamar urte, gutxi gorabehera, gu orain gauden txabolan bikote gazte bat bizi zen. Beraiek eraiki zuten txabola hau, beraien esku eta izerdiarekin. Herrian, gazte hauen harremanaren kontra zegoen jendea, beraien familia barne, ez baitzeuden ezkontuta. Baina maitasuna edozer eta edozeinen gainetik zegoen eta bikotearen maitasun istorioak aurrera jarraitu zuen.

Hamar urte bizi izan ziren hementxe oso zoriontsu, gutxi batzuek kontatzen zutenaren arabera.

Martxoaren 1ean, goizaldeko ordu batean, atso batek atea jo zuen. Nonbaiten lo egiteko lekua eskatu zien eta bikoteak ohe bat utzi zion. Ez dago argi zer gertatu zen gau horretan, ez baitago testigurik, baina hurrengo egunean, goizero bezala, esnea ekartzen zuen gizona txabolan sartu zenean, honako egoera harrigarria ikusi zuen: ez zegoen bikotearen ezta atsoaren arrastorik ere. Baina esne saltzailea kezkatu zuena haurtxo baten sehaska aurkitzea izan zen. Norena zen sehaskatxo hori? Neska gaztea ez zegoen haurdun edo hori uste zuen jendeak, edo behintzat, berak...

Elkarri begira gelditu ginen denok, martxoaren lehenengo eguna zen eta goizaldeko ordu bata hamar gutxiago ziren, hain zuzen ere. Bat-batean, norbaitek atea jo zuen, eta hor beldurtuta geunden guztiak isildu egin ginen. Pausu hotsak entzun ziren. Atearen beste aldean norbait zegoen. Peru, gutariko ausartena altxatu egin zen, atea zabaltu eta..., ez zegoen inor, lurrian eguzki-lore bat baino. Izututa, korrika batean herrira joan ginen eta bakoitza bere etxera joan zen.

Urteak aurrera joan ziren eta norberak bere bizitza egin zuen. Nik unibertsi-tatean ikasten nuen eta nire lagun gehienak herritik kanpo bizi ziren. Urte batzuk pasatu eta gero, afari bat egitea erabaki genuen, kasualitatea dela eta, (edo ez?) martxoaren batean geratu ginen. Betiko moduan, Lorek afaltzeko ordua eta eguna erabaki zuen, baina azken momentuan ez zen azaldu. Han geundela eta ordu bata puntu puntuan, norbaitek atea jo zuen gogor. Peruk berak zabaltu zuen. Berriro ere ez zegoen inor. Dena den egun hartan ohartxo bat agertu zitzaigun atean itsa-tsita paper zati batean eguzki-lorearen marrazki txiki baten azpian oso letra doto-reekin hau irakurri genuen:

“Beti zuen oroitzapenetan egongo naiz.

Lore”

Gertakizun hau gure gogoan gelditu zen betirako; zer gertatu zen? Lore nor zen? erlazionatuta zegoen guri gertatutako guztia?... Inork ez zion inori galderarik egin, eta zergatik jakin gabe, nahiz eta gure artean ez adostu, inork ez du gaur arte honetaz hitz egin.

Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Bobi potearen abenturak.....	9
- Ezkur txiki trebea	11
- Hiru musika tresna	13
- Egun bat gurpil gainean	15
- Margoen kutxa	17
- Pinguino esploratzailea	19

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Irune eta bere ametsaren arazoa	23
- Anaia salgai	25
- Liburu magikoa	29
- Egun bat museoan.....	32
- Haizea eta bere bolaluma	35
- Komunaren sekretua	40

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Ohe azpiko atetxoa	45
- Argitarantz joanda	49
- Booling-a jasan zuen mutikoaren egunerokoa	51
- Bat, bi edo hiru mundu	56

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Sorgina!	61
- Estralurtar baten egunerokoa	66
- Beti zure ondoan, laztana	69
- Maitasunaren bide bihurriak	71
- Butteko hilketak	73
- Tontoen istorioa	76
- Herriko kondaira bat	79



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

EUSKARA SAILA
ÁREA DE EUSKARA

zeurea da hitza

euskara

no te lo pierdas